

# AIARALDEA **hemen**



**TIPULARREN ETXEA  
DESALOJO ARRISKUAN**



## Erreportajea

ari dena, dena den, ez da kasu isolatua eskualdean eta ez dio erantzuten bakarrik Aiaraldeko errealitateari. Iñaki Carro, lehen epaiketean akusatuek izan zuten defendatzailea, Bilboko Okupazio Mugimenduko abokatua da eta azaldu du antzeko epaiketak sortzen ari direla Bizkaiko hiriburutik at duela bi urtetik hona. “Lehen Bilbon genituen horrelako kasuak, baina bi urtetik hona Aiaraldetik edo Durangaldetik ere etortzen zaigu jendea. Zuen eskualdean ere Urduñan eraman nuen kasu bat, adibidez. Horretan gazte batzuk lonja batean sartu ziren bizitzeko”, azaldu du.

### Profil aldaketa

Bere hitzetan, "okupen" profila bestelakoa zen lehen, eta sistematik kanpo bizitzen saiatzen zen jendearena izan zitekeen. Gaur egun, aldiz, kale gorrian bizi behar diren gazte migratzaileak daude behartuak bide hori hartzera; lo egiteko lekurik ez daukatelako edo ez dutelako dirurik gela bat ordaintzeko.

Abokatuak gaineratu nahi izan du beste datu bat: okupatzen diren etxeetan, sarritan, ez dagoela inolako deliturik. “Gazte hauek erabiltzen dituzten etxeak erabat abandonaturik eta hondatu-

Kale gorrian bizi ziren hamabi gazte aljeriar bizi dira barruan. **Eraikina irekita topatu zuten iazko neguan eta lo egitera sartu ziren**

rik daude. Ondorioz, ez diete inolako kalterik sortzen jabeek eta batzutan absoluzioarekin edota isun txikiekin amaitzen dira epaiketak”, nabarmendu du.

Tipularren Etxea horren adibidea da. XIX. mendeko etxea da eta 1999tik dago hutsik. Tarte batez okupatuta egon zen 2008. urtean, baina jabeak ez zuen ezta salaketarik jarri, lehen epaiketako sententzian nabarmentzen denez. 2025eko neguan, non lo egin ez zuten gazteek atea irekita topatu zuten eta barrura sartu ziren. Konponketa txikiak ere egin dituzte ordutik hona. Hala ere, barrutik paseo arina egitea baino ez dago berresteko ez dela etxebizitza egokia eta soilik beste aukerarik ez duena bizi dela barruan.

Esaterako, eraikinak ez dauka gutxieneko zerbitzurik, ura kasu. Leihoen kristalak hautsita daude eta korronteak nabaritzen dira. Sabaia ere erori da leku batzuetan. “Egun batez ohe baten gainean erori zen sabaia. Zorionez, ez zegoen inor lotan”, aipatu diote gazteek Aiaraldea Komunikabideari.

Horrez gain, hezetasun arazoak bistakoak dira eta kirats jasanezina sortzen dute etxearen toki batzuetan. Eta hori ez da oke-

**Arratoiak, hezetasuna, sabai eroriak, urik ez...**  
Okupatzen dituzten eraikinek ez dituzte gutxieneko bizi baldintzak betetzen, baina bide hori hartzen duten migratzaileek ez dute beste aukerarik, kale gorria ez bada

rena, han daudenetik, gazteek nabaritu dute arnas aparatua okerrera egin diela. Irudia boroiltzeko, arratoiak ere daude, eraikina ibaiaren alboan kokatuta dagoelako, eta euren presentzia mugatzeko, ogi puskak uzten dizkiete funtzionatzen ez duen sukaldean.

Inork erabili ezin duen higiezin horretan, orduan, zergatik jartzen dituzte jabeek abian epaitegien mekanismoak? Iñaki Carrok erantzun dio horri: inguruko auzokideek presionatzen dituztelako. Tipularren Etxea ere horren adibidea da. Jabeak ez zekien ezer eta hirugarren batek jo zuen beregana okupazioaren berri emateko, lehen sententzian azaltzen denaren arabera.

### Europara bidaia

Okupatutako eraikinek ez bade dute gutxieneko bizi baldintzarik eskaintzen, zergatik erabakitzen dute gazte hauek han sartzea? Oso erraza da erantzuna: ez dutelako beste aukerarik. Tipularren Etxeko bizilagunak bere kabuz heldu ziren Euskal Herriera, lan baimenik gabe. Batzuek pateran egin zuten bidea oso modu arriskutsuan. “Heriotzari begietara so egin genion itsasoan, uste nuen nire lagunak eta



# Erreportajea

ni hilko ginela”, aipatu dio batek Aiaraldea Komunikabideari.

Europara heltzean, ez dute esperotako egoera idilikoa topatu. Lan baimenik ez dutenez, ezin dute enplegurik lortu eta, lanposturik eta dirurik gabe, ez dute etxerik. Kale egoera aurretik ezagutu ez duten arren, batzuentzat beranduegi da atzera egiteko. “Aljerian garraiolaria nintzen. Nire kamioia saldu nuen hona etortzeko, eta orain ezin naiz itzuli, ez daukat ezer, diru guztia gastatu dut amets honen atzean”, azaldu du beste batek. Ametsa, askorentzat, amesgaizto bilakatu da eta nekez lortzen dute egunero aurrera egitea.

**“Aljerian garraiolaria nintzen. Nire kamioia saldu nuen hona etortzeko, eta orain ezin naiz itzuli, ez daukat ezer, diru guztia gastatu dut amets honen atzean”**

## Txatarra biltzea

Txatarra jasotzea da bizirauteko modua lan merkatuan sartzerik ez dutenentzat. Jarduera ez da samurra. Zabor artean bilatu beharra dago, goitik behera Bilbo arakatu (edukiontzia gehiago baitaude bertan) eta metalak garraiatu gurditxo batean edo besoetan eta, gainera, oztopoak saihestu.

Traba handienetako bat da txatarra erosten dutenek migranteen legez kanpoko estatusa baliatzen dutela ahalik eta gutxien ordaintzeko. Beste arazo bat da sarritan poliziak kentzen diela txatarraren uzta, lapurtu dutela argudiatuta.

Hori, gainera, ez da bakarrik txatarrarekin gertatzen. Tipularren Etxean bizi den gazteetako batek kontatzen du berak ez daukala indar nahikorik txatarran aritzeko. Hori egin ordez, zaborrean bilatzen ditu Wallapop bezalako sare sozialetan sal ditzakeen objektuak: “Ez dut diru asko ateratzen, bi edo hiru euro salmenta bakoitzeko, baina nire



12 gazte bizi dira gaur egun Laudioko Tipularren Etxean. Iazko neguan sartu ziren lehenak, atea irekita topatu ostean. [Aiaraldea.eus](http://Aiaraldea.eus)

janaria ordaintzeko balio dit, eta apur bat gehiago lortzen badut, nire semeari bidaltzen diot”. Tamalez, salatu duenez, poliziak behin baino gehiagotan kendu dizkio birziklatutako gauzak Laudion zein Bilbon (gutxi apurtutako padel raketak edo telefonoak kargatzeko gailuren bat) eta lapurtzea leporatu dio.

## Laudion errotzeko nahia

Trabak aintzat hartuta ere, Tipularren Etxean bizi diren gazteek asmoa daukate Aiaraldeko herritarrek bilakatzeko. Horretarako, inguruko ikastetxeetan

**Etxeko bizilagunek Lanbide Heziketan eta Helduen Hezkuntzan eman dute izena ogibidea eta gaztelera ikasteko**

eman zuten izena ikasturte hasieran. Lanbide Heziketan eta Helduen Hezkuntzan aritzen dira ogibidea eta gaztelera ikasten.

Urrats hori egiteko ezinbestekotzat jo dute Tipularren Etxean toki bat izatea. “Hemen bizitzeak aukera eman digu leku bat izateko eta ikasketetan kontzentratzeko. Kanean bizi zarenean ezin duzu ikasi. Une oro ari zara pentsatzen non lo egin ahalko duzun eta segurua izango ote den, etengabeko kezka da”, aitortu du gazte batek, Zeraobe Institutuan ikasten duenak eta inguruko enpresabatean praktikak lortu dituenak.

## Erregularitzatzeko oztopoa

Aurrera eta atzera egiten duten gazte haurrentzat, okupazioa izan da migrazioak ekarri dien irtenbiderik gabeko kalearen azken kantoia. Alde batetik, Tipularren etxean bizitzeak egonkortasun apurra eman die azken hilabeteetan ikasteko eta errutina izateko, baina orain larrutik ordainduko dute zigortutakoek. Izan ere, 600 euroko isunaz gain (ez dena gutxi inolako baliabiderik ez duten pertsonentzat) epaiak aurrekariak sortu dizkie eta horrek ateak itxiko dizkie Espainiako Gobernuak ireki berri

## Erreportajea



Lan baimenik  
gabe heldu  
direnez  
Euskal Herrira,  
**txatarra  
jasotzen  
lortzen  
dituzte  
biziarauteko  
bitartekoak**

duen premiazko erregularizazio prozesuan. Gauzak horrela, ezingo dira neurri horretaz baliatu eta are denbora gehiago itxaron beharko dute lan baimena eskuratzeko.

Horri gehitu behar zaio laster kale gorrian geratuko eta hasierako egoerara itzuliko direla, eta hautatu beharko dute: kalean bizi eta ikasketei eta bizitza normal bati agur esan edo beste higiezin abandonatu batean sartu euren bizitza eraiki ahal izateko. Modu batean edo bestean, kaleratzearekin ez da arazoa konponduko; gehienez, lekuz aldatuko da.

**Ikusi  
bideo-erreportajea  
osorik hemen:**



Aiaraldea.eus

# Herriz herri

## Orozko

### Aurtengo jaietako kartelaren bila dabilta Orozkon

Testua  
**Maider Ramirez Martin**

Aurtengo San Antolinak ilustratuko dituen kartela hautatzeko leihaketa abiatu du Orozkoko Udalak. Deialdian maiatzaren 4an herriaren erroldatuta dagoen edozein biztanlek har dezake parte. Sari nagusia 300 eurokoa izango da eta bigarrena 150 eurokoa. Haurren kategorian 100 euroko balioa duen pintura-materiala emango diote irabazleari.

Orozkon erroldatuta egoteaz gain, hainbat dira bete beharreko baldintzak. Hala nola, lanek originalak izan behar dute, sekula argitaratua eman gabekoak eta beste lehiaketan saririk jaso gabekoak. Teknikalibrea bada ere, formatu bertikalean aurkeztu beharko dira. Diseinuak honako testu hau izan beharko du: "Orozko San Antolinak 2026. Irailaren 1etik irailaren 6ra". Udalak adierazi du debekatuta egongo dela adimen artifizialarekin egindako kartelak aurkeztea.

Lanak aurkezteko bi bide egongo dira, fisikoan ala digitalki. Epaimahaia adituek eta herritarrek osatuko dute eta ekainaren 2tik 7ra egingo dute balorazioa. Egun horietan, kartelak Orozkoko Museoa edo Blas de Oteron egongo dira ikusgai. Aurrerago jakinaraziko du Udalak orozkoarrek nola bozkatu dezaket.

Lanak aurkezteko bi bide egongo dira, fisikoan ala digitalki.

Epaimahaia adituek eta herritarrek osatuko dute eta ekainaren 2tik 7ra egingo dute balorazioa. Egun horietan, kartelak Orozkoko Museoa edo Blas de Oteron egongo dira ikusgai. Aurrerago jakinaraziko du Udalak orozkoarrek nola bozkatu dezaket.

## Aiara

### La urtebete itxaron ostean, Soxok badu komunitate energetikoa funtzionamenduan



Soxoko instalazio fotovoltaikoa. [Aiaraldea.eus](http://Aiaraldea.eus)

Testua  
**Aitor Aspuru Saez**

Soxon sortutako komunitate energetikoa ekin dio bere bazkideentzako elektrizitatea produzitzeari. Guztira 16 kide daude eta horri gehitu behar zaio Administrazio Batzarra bera, zeinak hamaika argi publiko eta zentro soziala hornitzen dituen.

Jadanik 4,75MWh banatu ditu kontzejuaren eraikin batean kokaturiko azpiegitura fotovoltaikoa eta bi urteko prozedura itxi da horrela. Izan ere, Soxon 2024an hasi ziren egitasmoa lantzen. Komunitate Energetikoen Sarearen bitartez lortu zuten babes juridikoa kooperatiba abiatzeko eta fakturak kudeatzeko.

Gero finantzazioa ere eskuratu zuten Energiaren Euskal Erakundearen bitartez. Zehazki, proiektu osoak 49.227,17 euroko inbertsioa eragin du. 36.575 euro EEEK berak eman zizkien eta gainerakoa bazkideek euren ordainduko dute urtero kitatu behar duten kuota bitartez. Hain zuzen, hamar urtez 1.265

Iberdrolak martxoan ahalbidetuzion **Soxoko komunitate energetikoa elektrizitatea ekoiztu eta kontsumitzea**

euro ordainduko dute guztien artean eta bakoitzak bere partaidetzaren arabera egingo du ekarpen ekonomikoa.

#### Iberdrolaren zain

Edonola ere, bere betebehareei azkar egin bazien aurre, ia urtebetez egon da geldirik azpiegitura energetikoa. Iazko Aste Santuan instalazioa amaituta egon baitzen, baina Iberdrolak martxora arte luzatu du konexioa.

#### Auzolana

Soxoko proiektuaren oinarrietan, bazkide batek azaldu duen moduan, hiru zutabe daude. Alde batetik, aldaketa klimatikoari aurre egitea, karbono isurketak murriztea eta autonomia energetikoa handitzea. Bestetik, auzolana eta kontzejua bera. Herritarren artean bultzatu dute egitasmoa, soxotarrek gozatuko dute eta kooperatiba ez da instalazioaren jabe, baizik eta Administrazio Batzarra bera. Horrela ziurtatu nahi dute jendea joan ala etorri, bitarteko hori beti izango dela herriarena.

## Laudioko XVI. PINTXO LEHIAKETA

Maiatzak  
22, 23, 24, 29, 30, 31



[laudiodcomercial.com/es/pintxos](http://laudiodcomercial.com/es/pintxos)

Dastatu  
Laudio



## Arrankudiaga-Zollo

## Erantzun positiboa izan du Arrankudiaga eta Zolloko Gazte Egunak

Asanbladako kideek positiboki baloratu dute Gazte Eguna. [Aiaraldea.eus](http://Aiaraldea.eus)

Testua  
**Aitor Aspuru Saez**

Arrankudiaga eta Zolloko Gazte Eguna ospatu zuen herriko zein kanpoko jende askok, iragan apirilaren 25ean. Goiza mendi ibilaldiarekin abiatu zuten. Indarrak hartzeko txitxiburduntzia ere prestatu zuten eta 15:00etan 40 lagun baino gehiago batu ziren bazkaltzeko.

Ondoren, Euskal Herriko tribiala jokatu zuten eta poteoaren os-

tean musikaren unea heldu zen. Herriko plazan Zinkha eta Bier Seit taldeek jo zuten eta gero Gizarte Etxean DJ Pipik girotu zuen gaua.

Gazte Asanbladako kideek oso positiboki baloratu dute jarduera baita azken hilabeteetan ere deitutako beste ekintzak ere, Korrikan esaterako.

**Aisialdi eredu berri bat**

"Gure interesen arabera aisialdi eredu bat antolatzeko beha-

rrageneukan Arrankudiaga-Zolloko gazteok", azaldu diote Aiaraldea Komunikabideari Gazte Asanbladako kideek. Izan ere, aisialdi eredu "kontsumoari eta taberna giroari oso lotua" dagoela sumatzen dute herrian.

Gazte Eguna inflexio puntu gisa irudikatu dute, eta espero dute gazte gehiago batzea Arrankudiaga-Zolloko Gazte Asanbladara: "Ekintza gehiago antolatu nahi ditugu etorkizunean".

## Okondo

## Berdindu Euskadiko LGTBIQ+ zerbitzuak Okondo bisitatuko du maiatzaren 28an

Testua  
**Aitor Aspuru Saez**

Maiatzaren 28an Berdindu Eusko Jaurlaritzako LGTBIQ+ Euskal Zerbitzua sei orduz arituko da Okondoko Kultura Etxean, 12:00etatik 18:00ak arte.

Bitarteko publiko horrek LGTBIQ+ pertsonen, familien eta entitateen zuzendutako arreta, informazioa eta aholkularitza ematen die.

Alde batetik, Berdinduk arreta eta aholkuak proposatzen die

lesbianei, gayei, bisexualei, transei eta intersexualei, bai eta haien ingurukoei ere, sexu-joera edo sexu- eta/edo genero-identitatearen inguruko edozein gai buruz. Bestetik, duen helburua da hezkuntza-komunitatea, gizarte-eragileak eta profesionalak, komunikabideak eta, oro har, herritarrak informatzea, LGBTIfobia desagerrarazteko.

Jarduera hau maiatzaren 17ra lotu dute, Homofobiaren, Lesbofobiaren eta Transfobiaren Kontrako Nazioarteko Eguna baita.

**B**  
BOR-BOR ELKARTEA

**Agroekofeminismotik ELKAR ELIKATUZ**

18:00-21:00  
Aiaraldea Ekintzen FAKTORIAN  
Audio

**Maiatzak 21**  
Haziera: hazia, lurra, sasoia eta erroa  
Emakume eta elikaduraren arteko harremanei begiratu

**Maiatzak 28**  
Beharretik plazerera  
Ekonomia feminista

**Ekainak 4**  
Lokala globala da, sukaldeak batzen duena  
Elikadura globala eta migrazioa

**Ekainak 11**  
Eskualdeko ekoizleei bisita eta mokadua

Ezinbestekoa da ziklo osorako izen-ematea (ezingo da saioka/banaka apuntatu)

Plaza kopurua: 12 lagun (Itxaron zerrindaren hurrenkera jarraituko da tokia balego saioetan)

Izen-ematea eta info+: [l.eus/borborTLF](mailto:l.eus/borborTLF)

Babesleak  
araba álava foru aldundia diputación foral  
Laia

ziniuere  
EKO-NO-MA-TUA

**ALMACEN PINTURAS REGUERA**

Dekoraziorako margoa  
Makinaria  
Pintura industrialia  
Lan-tresnak  
Paper margetua  
[www.pinturasreguera.com](http://www.pinturasreguera.com)

%40 deskontua 15 litroko pintura txurian

94 672 82 74  
Zumalakarregi 19, behea

LAUDIO

Gardeako industriagunea 4  
94 672 81 22

# Herriz herri

## Amurrio

**478,5 metro karratu izango ditu Mendiko Eskolako jolastokiko estalkiak, eta eguzki-plakak jartzeko aukera emango du**



Mendiko Eskolako patioan jarriko dute estalkia. **Amurrio Udala**

Testua  
**Txabi Alvarado Bañares**

Hasierako onarpena eman dio Amurrioko Udaleko Gobernu Batzordeak Mendiko Eskolako jolastokiko estalkiaren proiektuari. 478,5 metro koadroko gune bat atontzea aurreikusitua dute.

Tokiko erakundeak zehaztu duenez, “egitura modular” bat eraiki nahi dute, “bi fase-tan gauzatzeko aukera emango duena, eta, horrela, aurrekontu-erabilgarritasunera” egokitzeko aukera emango duena.

Aurreratu dutenez, altzairuzko egitura izango du estalkiak, eta “sandwich-panel bidezko

itxitura-sistema”. Modu horretan, argi naturala sartzea erraztu nahi dute. Gainera, diseinu horrek aukera emango du etorkizunean eguzki-plakak instalatzeko. Horrela, “jasangarritasunarekin duen konpromisoa sendiou” nahi du Udalak.

### 1.116 herritarren babesa

Guraso elkarteak sustatu zuen estalkiaren proiektua iaz. Arabako Foru Aldundiko aurrekontu parte hartzaileetara aurkeztu zuten egitasmoa, eta hautatua izan zen azkenean, 1.116 herritarren babesa jasota. Gauzak hala, foru erakundearen finantziarioa jasoko du proiektuak.

## Urduña

# Urduñako Gaztetxe ohia eraisteari ekin diote



Bi astez luzatu dira eraisketa lanak. **Aiaraldea.eus**

Testua  
**Txabi Alvarado Bañares**

Apirilaren azken astean ekin zioten Urduñako Gaztetxearen eraikina eraisteari. Kale Zaharra itxi zuten horretarako, eta aldi baterako sarbideak atondu zituzten ibilgailuentzat. Bi astez luzatu dira eraisketa lanak.

Modu horretan, behin betiko amaiera eman zaio hamarkada oso batez hiriko gazteen gune autogestionatua izandakoari. Urduñako 14. Gazte Egunaren bihar-munean okupatu zuten Gaztetxea, 2012ko udaberrian, eta segituan ekin zioten espazioa pres-

tatzeari. Hainbateremu antolatu zituzten Gaztetxean, ohiko kontzertu aretoaz eta barraz harago: boulderra, bilera gelak, entsegu lokala... Gorabehera ugari ere izan zituzten bidean.

Indusketa arkeologikoak egin behar izan zituzten auzolanaren erdian, eraikina gune historikoan zegoelako eta bertako horma bat hiriko Erdi Aroko hesiaren parte izan zelako.

Gazte Asanbladako kideak eurak arduratu ziren arkeologoak bilatzeaz, eta emaitza interesgarriak utzi zituen ekimenak, XVII. edo XVIII. mendeko isurbide bat topatu baitzuten ikerla-

riek. Jarduera ugariaren aterpe ere izan zen gaztetxea hamarkada osoan. Adibide moduan, bertan eginiko bi kontzertu jendetsu: Itxaropen Zikina taldeak 2014an eskainitakoa eta Eskupitajo taldeak 2018an jo zuenakoa.

### 2021tik hutsik

Pandemiaren erdian eten zuen bere jarduna Gaztetxeak, eta ez zen berriro ireki. 2021ean jakinarazi zuten espazioa erabiltzeari utziko ziotela, eraikinak arazo estrukturalak zituelako eta bere egoerak okerrera egin zuelako. Orduz geroztik hutsik egon da espazioa.

**Colegio Nuestra Señora de la Antigua  
Antzinako Andra Maria Ikastetxea**



**Urduña  
(Bizkaia)**

**HAUR HEZKUNTZA 0-2 / 3-5 URTE  
LEHEN HEZKUNTZA - DBH  
BATXILERGOA  
GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOA - DAM**



**945 38 48 30**

**AA ETA BIG DATAREN ESPEZIALIZAZIO IKASTAROA  
ERIZAINZAKO ZAINZA OSAGARRIETAKO TEKNIKARIA**

**NOBEDADEA!**

## Aiaraldea

# Industria Sailak Ferosca I zentral eolikoaren kontrako errekurtsioa baztertu eta gero, auzokideak epaitegira jotzea baloratzen ari dira

Larrazabalgo auzokideek egindako bilera. [Aiaraldea.eus](http://Aiaraldea.eus)

Testua  
Aitor Aspuru Saez

Eusko Jaurlaritzak alboratu du Larrazabalgo auzokideek eta Aiaraldeko Mendiak Bizirik plataformak egindako gora jotzeko errekurtsioa eta erantzun die ez dutela argudiatu proiektuak kalteak eragingo dituenik.

Plataformak, prentsa ohar bidez, adierazi du erakundearen erabakia legezkoa dela formalki, baina ez dela sartu baloratzera aurkeztutako argudioak: "Ezin dute sei aerosorgailutik hirura murriztu den proiektua onartu informazio publikoa eman gabe, proiektu tekniko finalik gabe, edota hirigintza txostenak eguneratu gabe".

Halaber, salatu dute Laudioko eta Amurrioko Udalak Jarraipen

Aiaraldeko Mendiak Bizirik plataformak egindako **gora jotzeko errekurtsioa onartzea baztertu du Industria Sailak**

Batzordetik kanpo utzi izana irregularitasun zantzua izan daitekeela.

### Bidea egiteko tartea

Eusko Jaurlaritzak proiektuak kautelaz gelditzea baztertu badu ere, plataformak eta auzokideek aipatu dute Industria Sailaren erabakiak ez duela prozedura bukatu eta administrazioarekiko auzi-errekurtsioa aurkezteko aukera dagoela oraindik.

Horretarako bost arrazoi nagusi baliatuko dituzte. Alde batetik, aurkeztutako proiektua eta onartutakoa ezberdinak direla, udal hirigintza araudiakin ez dela bateragarria, proiektuko aldaketen informazioa falta dela, Udalak alboratu dituztela eta lurraldean zein ingurumenean kalte konponezinak eragingo dituela.



Etxebarriaur kalea, 6, Amurrio  
945 39 30 00 // [zaraobe@zaraobe.net](mailto:zaraobe@zaraobe.net)  
[www.zaraobe.net](http://www.zaraobe.net) ✉ [@zaraobeinsti](https://www.instagram.com/zaraobeinsti)

## LANBIDE HEZIKETA

## MATRIKULAZIO EPEA Maiatzaren 4tik 22ra

### GINARRIZKO LANBIDE HEZIKETA

- ZURGINTZA (A eredu)
  - INSTALAZIO ELEKTROTEKNIKOAK ETA MEKANIKOAK (D eredu)
- Egokitua 3 urte.

### ERDI MAILAKO ZIKLOAK

- MANTENTZE-LAN ELEKTROMEKANIKOAK
- MENDEKOTASUN EGOERAN DAUDEN PERTSONEI ARRETA (A eta D eredu)
- MEKANIZAZIOA

### GOI MAILAKO ZIKLOAK

- MEKATRONIKA INDUSTRIALA (A eta D eredu eta ingelesez ere)
- GIZARTE INTEGRAZIOA (A eta D eredu)

info guztia hemen:



# Elkarrizketa



ARDURA BERRI BAT HARTU DU **JULEN IBARROLA** IZORIARRAK: ARABAKO KONTZEJUEK ELKARTEKO PRESIDENTEA DA. KONTZEJUEK ANTOLAMENDUAREN NONDIK NORAKOAK AZALDU DIZKIGU, BAI ETA AKEK JARDUN HORRETAN EGITEN DIEN EKARPENA ERE.



Testua **Maider Ramirez Martin**

**Izoriako administrazio batzarreko ordezkaria zara. Zelan hartzen duzu orain Arabako Kontzejuen Elkarte (AKE) presidentea izateko ardura?**

Ardura hau ezaguna da eta gustora hartzen dut. Nik elkartearen zerbitzuak behar izan ditut beti eta orain horretan laguntzeko nago hor. Administrazio batzarretan urte amaieran izan ziren hauteskundeak eta karguak berri ziren. Arabako kontzeju gehienak, ia 330, AKEren parte dira eta buruan egoteko zerrendak aurkeztu daitezke. Zerrenda prestatu genuen eta hautagaitza bakarra izan zen. Harrezkero hemen gaude.

**Zerrenda Arabako kontzeju gehiagotako kideek osatzen duzue.**

Bai, lau gara eta saiatu ginen leku ezberdinetakoak izaten. Ardurak banatu ditugu, nor den burua, nor idazkaria... Baina guztion artean egiten dugu guztia. Horrela egiten da ere kontzejuetan. Administrazio batzarretan ohituta gaude lanak guztion artean egitera, eta horretan egingo dugu ahalegina.

**Administrazio batzarrek ezinbesteko tresnak dira lurraldeko gobernanzarako, baina haien inguruko jakintza ez da, beharbada, hain handia inguruko herri populatuagoetan. Nola funtzionatzen dute?**

Administrazio batzarrek gobernantza sistema demo-

kratiokena direla esan dezakegu. Bozka zuzenaren bitartez, herri-batzarretan erabaki guztiak hartzen dira. Ordez-kariok kargu publikoak gara baina ez dugu kobratzen egiten dugun lanagatik, horregatik auzolana behar-beharrezkoa da.

Eskumenei dagokienez, Udal batek dituen antzekoak dira, baina urbanismo arloan ez dugu zuzenean eskumetik. Zergak ez ditugu kobratzen, tasak bai, ordea. Horrek esan nahi du lan handia dugula egiteko eta baliabideak mugatuak direla. Zuzenean ditugun eskumenei dagokoak dira, besteak beste, mendi kudeaketa, oso garrantzitsua dena, batez ere Araban non mendien %80 publikoa den. Hilerriaz, ur-horniduraz, estolderiaz, gizarte etxeaz, jaiez... ere arduratzen gara. Gutxi gorabehera Udal batek dituen

## Elkarrizketa

“KONTZEJUETAN  
BIDEGURUTZE  
BAKOITZEAN  
HARTU BEHAR  
DUGUN  
NORABIDEA  
HERRITAR  
GUZTION ARTEAN  
ERABAKITZEN  
DUGU”

zeregin berak dira, baina guztion artean kudeatzen ditugu, asanblada irekian.

**Bitarteko oso urriak dituzuela aipatu duzu. Alde bate-tik Udalak dirua banatzen du Adminstrazio Batzarren artean, baina obra txikiak zein handiak egiteko kanpoan bilatu behar duzue finantzazioa.**

Adminstrazio Batzar batek, adibidez, Maroñok, baditu urtean zehar finkoak diren diru sarrera batzuk, Laudiori edo Artziniagari bezala sartzen zaizkionak. Baina kopuru hori beharbada 6000 eurokoa da. Horrekin agian 300.000 euroko obra bat egin behar du kaleak konpontzeko. Horren aurrean dirulaguntzak bilatu behar ditu, edonon: Udalean, Foru Aldundian, Europar Erein programaren bitartez...

Azken horretan erakunde askok egiten dute eskaera eta gure apusutua izaten da ideirik onenak aurkeztea, hobekien jantzita, diru ehunekorik handiena lortzeko, finantzazio handia behar izaten baitugu %90 edo %100. Izapide horiek egitea eguneroko lanaren gehiena dakartza.

**Lan horretan paper garrantzitsua jokatzeko du AKEk.**

Ezinbestekoa. Azken finean, Udal batean administrari profesionalak daude, idazkari-kontuhartzailea dago, ingeniariak, arkitektoak... Adminstrazio Batzarra herritarrek osatzen dugu eta bakoitzak bere alorreko jakintzak ditu. Horretarako dago AKE. Bertan adminstrariak daude, ingeniariak, arkitekto bat, abokatu bat, sare sozialetako aditu bat... Adibidez, orain izapide guztiak egoitza elek-

tronikoaren bidez egin behar direnez, horretarako baliabideak ere eskura jartzen ditugu.

Beste alde batetik, azken urteetan ez da egon artxiiboak ordenatzeko dirulaguntzarik, eta orain Aketza Merino historialari amurriorarrak lan horretan lagunduko digu, eta herrietako altxor horiek digitalizatzeko eta zabaltzeko asmoa ere badugu.

Horretarako dago AKE, herrian ditugun beharrei erantzuten laguntzeko, egunerokoak jan ez gaitzan.

**“Ur-hornidura, estolderia, gizarte etxea, jaiak, mendi publikoa, hilerria... kudeatzen dugu kontzejuok”**

**Laguntza eskaintzeaz gain, kontzeju guztien interesak batzeko ikuspegi orokorra bermatzen du. Hurrengo lau urteetarako, zeintzuk dira erronka estrategikoak?**

Energia berriztagarriak badira, esaterako, erronka garrantzitsu bat. Guk hor dioguna da egiteko modua aldatu behar dela. Orain arte ez dugu Nekazaritza eta Basogintza Antolatze Lurraldearen Plan Sektorialik izan, eta marko juridiko handi bat beharko genukeela uste dugu, batez ere enpresak gure lurretara heltzeko duten modua mugatzeko.

Guk uste dugu entitate publikoek hartu behar dutela zuzenean horren gidaritza herrietatik presio hori kentzeko. Lerro batzuk zuzendu lur emankorrak eta ondarea babesteko, legeak betetzen joan daitezten eta espekulazioa arintzen joan dadin.

Beste arlo batean, errepideei dagokienez, uste dugu beharrezkoa dela legeen interpretazioa ez izatea beti hain negatiboa gurekiko. Baserrien zaintza berezi bat behar da eta beti horren kontra egiten dela dirudi. Dena ala ezer ez izan beharrean bitarteko bideak egon daitezkeela uste dugu guk.

Kontzejuen araudia 1985koa da eta uste dugu berri- behar dela. Horretan daude Araba mailan eta onurak ekarriko ditu, adibidez kontzejuetako buruak hautatzeko irizpideei dagokienez. Transparentzia erramintak ere ekarriko ditu eta zentsura mozioak ere egin ahal izango dira. Normalean giroa lasaia da eta ez da horrelakoren beharrik, baina salbuespenak ere egon daitezke.

Beraz, lau urte hauetan, gure helburu nagusiak dira kontzeju bultzada ematea eta gure jarduna ezagutaraztea. Ikusten dugu Udalek diotela herritarrei ahotsa eman behar zaiela eta hori sustatzen dute. Guk aspalditik egiten dugu hori eta zeharo gustagarria zaigu. Bideturte bakoitzean hartu behar dugun norabidea herritar guztion artean erabakitzen dugu. Funtzionatzeko modu hori tokiko entitate publiko batean martxan egotea merezi du ezagutua izatea.

# Iritzia



## EUSKARARI BAI

**Irune Etxebarria**

**B**adira euskara oso hizkuntza zaila dela diotenak, ia ezinezkoa, eta horrek euskal senaren inguruko gogoeta bat egitera bideratzen nau. Zenbait pertsonaren aburuz, errespetu falta larria omen da gaztelaniara ez aldatzea euskara ez dakien norbait presente dagoenean. Esanak esan, ez al da errespetu falta handiagoa euskaldunak Euskal Herrian gaztelaniaz egitera bultzatzea? Nire amamaren istorioa da, hain zuzen ere, pentsamolde hau izatera eramaten nauena.

Badaukat amama bat Niebla herrian jaio zena, Andaluzian. Bere aita “Explosivos Río Tinto” enpresako langilea zen, eta enpresako langile ugariri Galdakaoko instalazioetara mugitzeko proposamena egin zieten. Irabaziak handitzeko helburuarekin, herria atzean utzi eta Usansoloko Gorosibai auzora joan ziren bizitzera. Bertan, ezin hobeto moldatu ziren lehen egunetik inguruko baserrietako auzokideekin. Amama, kuadrilakoekin batera, Igorrera joaten zen larunbatero kartetan jolastera eta dantza egitera. Astebururo bezala, Igorreko tabernan zegoelarik, aititek dantza egiteko gonbita luzatu zion. Elkarrekin aritu ziren dantzan, eta musikak iraun zuen denboran pare bat hitz elkarbanatu zituzten. Harrezkero, aitite egunero joan ohi zen Usansolora amama ikusteko asmoz. Abuztua heldu orduko, amama jaioterrira itzuli zen oporretan bere aitarekin batera. Hiriburuan eman zuen eguna erosketak egiten, baina espero ez zuen zerbait gertatu zen Nieblara itzuli eta busetik jaisterakoan. Bere osaba gerturatu zitzaion, Bilboko gazte bat kanpin-denda batekin harresi alboko mendian jarri zela, eta berataz galdezka zebilela esanez. Gurasoei txintik esan gabe, aitite auto-stop eginez joan zen Orozkotik Andaluziara. Geroztik, harreman estuagoa izan zuten eta hurrengo abuztuan elkarrekin joan ziren oporretan. Oso gazte ezkondu ziren, ezkontza baitzen Euskal Herrian gelditzeko bide bakarra. Bere aitaren jubilazioak familia osoa berriro Andaluziara bueltatzea eragin zuen. Egoera horren aurrean, bi aukera zeuden: ezkontzea edo itzultzea. Aititerekin ezkontzeko hautua egin zuen, eta Orozkoko baserrira joan zen bizitzera.

Iguartze baserria pinudiz inguratuta zegoen, ikuilua aberez beteta eta baratzea beti emankor. Hori gutxi balitz, gau eta egun aritzen ziren etxeko ogia eta euskal pastelak egiten. Ez zen lanik falta. Amama, berehala ohitu zen bertako bizimodura. Berak euskaraz ez zekien arren, aititeren familiak inoiz ez zion utzi Orozkoko euskara itxia hitz egiteari. Horrela, amama laster ohartu zen hizkuntza hori biziki maite zutela, eta belaunaldiz belaunaldi transmititzeko konpromisoa zainetan zeramatera. Egoera ulertu zuenean, AEKn izena ematea erabaki zuen. Dena dela, inoiz ez da euskara hitz egitera ausartu, primeran ulertzeko gai den arren. Seme-alabak jaiotzean, ez zitzaion burutik pasa ere egin ikastola ez den beste eskola batera eramatea. Euskara nahiz euskal kultura sustatzen dituen hezkuntza-ereduaren alde egin zuen apostu, haurrek baserrian jasotakoari jarraipena emateko.

Bakoitzak euskara modu ezberdinean bizi du, amamaren istorioa adibide gisa hartu badut ere. Denon ardua da euskarari lekua ematea, eta egiten den ekarpen oro, txikia izanda ere, ongi etorria da. Alboetara so egin ordez, gure zilborrera begira dezagun, euskara kaleetara eramatearen arduradunak gu garelako.

*Geure arima hiltzen uzteko bezain odolgalduak ote gara?*

“Alboetara so egin ordez, gure zilborrera begira dezagun, **euskara kaleetara eramatearen arduradunak gu garelako**”



## MUNDU FISIKO ETA BIRTUALEAN BIZITZEN

**Uxue Harto**

“Errealitate bikoitz honek gure **konpromiso sozialak ugaritu eta arreta suntsitu ditu**”

**D**igitalizazioak izugarriko presentzia hartu du gure eguneroko bizitzan. Mugikorra leku guztietara eramaten dugu: lanera, klasera baita komunera ere. Donna Haraway teoriari jarraituz, esan dezakegu mugikorra gure gorputzaren eta adimenaren luzapen bihurtu dela. Mugikorra ez da poltsikoan eramaten dugun gailu bat soilik, bere ustez, organismo eta makinaren arteko mugak ezabatu dira eta horrek “cyborg” bihurtzera eraman gaitu.

Gutako askok mugikorra eta han zeuden argazkiak galtzean gure bizitzaren zati bat -eta gure oroitzapenak- galtzen dugula sentitzen dugu.

Ezin dugu ukatu digitalizazioak onurak ekarri dituela, izan ere, birplan-teatu behar diren problematika asko ere agertu dira. Prezio garestia ordaintzen ari gara arretari eta osasun mentalari dagokionez, eta ezinezkoa da digitalizazioak ireki duen mundu bikoitzan (fisikoan eta birtualean) modu osoan eta osasuntsuan aritzea.

Hau da, badirudi gaur egun bi eremutan bizi garela: familia zaindu edo lan egiten dugun bitartean, ezin dugu ahaztu mezuak erantzun behar ditugula. Horrela, ba, errealitate fisikoan gauden bitartean, birtualean gertatzen denaz ere arduratu behar gara, besteek badakitelako konektatuta gaudela.

Adibidez, Euskaditik kanpo bizi arren, lagunen egunerokoan egon gaiten BeReal bezalako aplikazioen bidez. Gure presentzia hor dago, modu birtualean izan arren. Edozein momentuan konektatuta eta erraz aurkitzeko moduan gaudela pentsatzen dute besteek. Baina eguneko orduak mugatuak dira. Beraz, zeri eman behar diogu garrantzia: kafe bat hartzeko denbora fisikoa ateratzeari edo etengabeko komunikazio digitalari?.

Datuen arabera, gero eta gehiago kostatzen zaigu jarduera batean arreta mantentzea. Egia esanda, ez da harrizkoa: jakinarazpen bakoitzak gure atenzioa zatitu egiten du. Adibidez, pelikula bat ikustean elkarrizketa digital bati ekiten badiogu, gure arreta erdia pelikulan dago eta beste erdia elkarrizketan, bi jarduerak erdizka utziz. Nire galdera hurrengoa da: noizbait egingo dugu jarduera bat jarraian bi errealitateetan bizi bagara?.

Laburbilduz, errealitate bikoitz honek gure konpromiso sozialak ugaritu eta arreta suntsitu ditu. Ondorioz, dena egin ezin duzun sentsazioa baduzu, har ezazu lasai: fisikoki ezinezkoa da fronte guztietara iristea, inguru digitalak aukera hori posible dela sinetsarazi nahi digun arren.



## ZELAKO HARREMANA NAHI DUGU AIARALDEAN GIZAKI EZ DIREN ANIMALIEKIN?

Irene Barañano

**A**ntiespezismoaren inguruko zutabe bat eskatu zidatenean, ezin nuen sinetsi. Bada, antza, txoko honetan gai honen inguruko interesik. Orduan hasi nintzen pentsatzen: Zergatik behar dugu Aiaraldean gizakiz besteko animalien zapalkuntzaren inguruan hausnatzen duen zutabe bat?

Hainbat gertakarik adierazten dute beste animaliekin dugun harremana aldatzen ari dela. Zezenketak, bigantzak, asto lasterketak, idi probak eta antzekoak desagertzen ari dira hainbat jaitatik; aukera beganoak dituzte hainbat jatetxek; kaleko katuen kudeaketaren inguruko eztabaidak pizten dira noizean behin eta ekofeminismoa hainbat esparrutatik hedatzen ari da, seinale batzuk aipatzearren.

Pentsamolde berriak azaleratzeak beti ekartzen du deserosotasun puntu bat. Kasu honetan, gainontzeko animaliekin dugun harremana aldatu nahi ez dutenen eta zalantzan jartzen ari direnen arteko tentsioa. Bigarren horientzako besarkada izatea du xedea zutabe honek. Gainontzeko aiaraldetarrek ikusten ez duten biolentzia espezia ikusten dutenentzat, alegia, baita jaiak animaliak zirikatu gabe disfrutatu nahi dituztenentzat, ganadu azoketan normalizatzen den indarkeria gustuko ez dutenentzat eta animaliak jan nahi ez dituztenentzat ere.

Erroka handia da gizakiok animaliak nahi bezala erabiltzeko tresna gisa ikusteari uztea, edo gizakiok gainontzeko animaliekin zelako harremana izan nahi dugun pentsatu —beharbada lehenbiziko aldiz—, eta guztiontzat justuagoa den komunitatea eraikitzea. Hausnarketa prozesu horretarako ideia batzuk botako ditut zutabe honetatik, militantzia antiespezistan eta beste hainbat borroka sozialetan kolektiboki ikasitakoa oinarri hartuta.

Nolanahi ere, prozesu horretan ezin dugu ahaztu antiespezismoa ez dela animalien askapenerako borroka hutsa, baizik eta zapalkuntza guztiekin amaitzeko mugimendua, zeinak “guztiok” horren barruan animaliak ere aintzat hartzen diren. Hori dela eta, Aiaraldeko herritarren gainontzeko kezken eta eskakizunen eskutik joan behar du antiespezismoak, hots, euren lanpostuengatik borrokan dabilzanen eskutik; matxismoaren kontra lanean ari direnen aldamean; pentsiodunekin; eskualde irisgarriagoa eskatzen ari direnak ahaztu barik; espazio auto-gestionatuekin bat; merkatariekin; nekazari eta abeltzainekin.

Bai, nekazari eta abeltzainekin ere, euren baitute euren bizi baldintza propioen eta euren pean dauden animalien askatasunaren arrakastarako giltza garrantzitsu bat. Hortaz, ezinbestekoak dira animalien interesen inguruko hausnarketa prozesu honetan. Gainera, euren lanbideak gure elikadura burujabetzarako funtsezko tresna dira, baita, tokiko merkatariekin batera, Aiaraldeko ekonomia suntsitzen duten makroenpresen kontrako erresistentzia erreminta ere.

Gure espezismoaz jabetzeko eta Aiaraldeak antiespezismoaren irakurketa propioa egiteko, esfortzu kolektiboa egin behar dugu. Guztiok —gizakiz besteko animaliak barne— zapalkuntza estrukturalik jasan gabe bizi garen Aiaraldea posiblea da.

“Gure espezismoaz jabetzeko eta Aiaraldeak antiespezismoaren irakurketa propioa egiteko, **esfortzu kolektiboa egin behar dugu**”

## Gora Errealala eta gora Aitor Zabaleta!



Juan Jose Arto Rodriguez

**A**pirilaren 18an, 1987an bezala, Errealaren Kopako finala bizitzera joan nintzen. 1987an Zaragozan izan zen, eta aurten, aldiz, Sevillan. Betidanik izan naiz Real Sociedadeko jarraitzailea, txikitatik. Umea nintzela zaletu nintzen eta beste amodio batzuekin ez bezala, futbol taldez ezin da aldatu. Arraroa da, ez baitut seniderik Gipuzkoan, baina Laudion 100 zale baino gehiago biltzen gara.

Gauzak horrela, ostiralean Sevillara jo genuen eta larunbatean bertan partida hasi baino lehen nire tokia hartu nuen futbol estadioan. Gure eremua mistoa zen, batzuk errealekoak ginen eta beste batzuk Atletico de Madridekoak eta guztiei esan nien gauza bera: “Gaurko finala Zaragozan bezala amaituko da eta penaltietan irabaziko dugu”. Askok harriduraz begiratzen ninduten, baina nik bihozkada nuen.

Sentimendu hori indartu nuen Marreroren kamiseta ikustean, Luis Arconadaren kamiseta oroitzen zuen eta, norbaitek ez badaki, Arconada izan zen 1987ko heroia, penaltiak geldituta.

Eta zorionez ez nintzen okertu. Finala paregabea izan zen eta hasiera eta amaiera ezin hobekak. Segundo gutxitan sartu zuen lehen gola taldeak eta korrika ospatu nuen. Eta sentsazio guztiekin batera, banuen susmoa gure alde beste talisman bat izango genuela, Aitor Zabaleta.

Aitor errealeko zale jatorra zen. Cartujan prestatutako fanzonean Iskanbila Peñarekin topo egin genuen eta han zeuden bera ezagutu zuten kideak. Guztiek kontatu ziguten zein tipo jatorra zen, inolako etsirik gabe. Inork ez zuen ezer bere aurka eta hil zutenek, Frente Atletico barruan dagoen Bastión talde are ultragoa den jendilajekoek argi izan zuten 1998ko abenduaren 8an euskaldunen ehiza egingo zutela eta trofeoa lortuko zutela.

Izan ere, Aitor labankadaz hil zutenek euskalduna izateagatik erail zuten. Ez zen aurretik inolako liskarrik egon eta ez zen ultren arteko borrokarik egon. Aitor Zabaleta ez zen ultra bat, emakumez osatutako peña batekin jaitzi zen Madrilera bere taldea animatzera eta futbolaz gozatzerara, eta nazi batzuek hil zuten. Ez dago ekidistantziarako tarterik eta horrela ulertu genuen Euskal Herrian orduan eta oraindik ere.

Horregatik finalaren egunean bere tifoak gogoratu zigun estadioan geundenok ez ezik, nonbaitetik Aitor genuela animatzen eta bere indarra sentitu genuen penaltietan.

Horregatik guztiagatik, gora errealala eta gora Aitor Zabaleta!

# Kronika

## Bidaia bat Marokora

Marokon barrena bidaia egin du Anwar Arakraki Laudio BHIko ikasleak. Kronika batean bildu ditu bidaian bizitakoak eta egindako gogoetak, eta gurekin elkarbanatu ditu.



Testua eta argazkiak  
**Anwar Arakraki**

Marokora bidaian joan ginenean, lau egun igaro genituen Warzazate hirian. "Basamortuko atea" izenez ezaguna, hiri honen edertasunak, historiak eta bertakoen berotasunak txunditu gintuen.

Bidaia alderik gogoangarrietako bat adeitasun handiz harrera egin zigun familia batezagutzea izan zen. Haieiesker, gertutik ezagutu ahal izan genituen marokoarren ohiturak, etxeko gastronomiaz gozatu genuen eta benetako momentuak partekatu genituen.

Bereziki, familiako seme baten, Hamzaren, lagun oso ona egin nintzen. Azkar konektatu genuen eta elkarrizketa, barre eta esperientzia ugari partekatu genituen. Berarekin egoteak balio erantsi bat eman zion bi-

daiari eta egun horiek zerbait askoz garrantzitsuagoa bilakatu ziren. Behin, elkarrekin joan ginen Fint ibaira, bere familiaren etxetik gertu. Leku ederra zen, palmondoz eta mendiz inguratua, non arratsalde lasai bat igaro genuen naturan murgilduta. Hurrengo egunean, Hamzak gonbidatu ninduen berarekin eta bere lagunekin auzoko igerilekuan eguna pasatzera.

Warzazaten egon ostean, bi eguneko tourra Merzuga basamorturantz. Lehenbiziko egunean, mendi-errepideetan barrena joan ginen, Dadesko Arroilera heldu arte. Bertan egin genuen gaua harkaitz-formazio ikusgarri eta mendi-hegaletan kokatutako herri txikiez inguratuta. Biharamunean, berriro ekin genion deserturantzko bideari. Merzugara heltzean, dromedarioetara

igo, dunak zeharkatu eta haima tradizional batzuetara heldu ginen. Hantxe igaro genuen gaua, izarrez betetako zeru harrigarri baten azpian. Esperientzia magikoa izan zen: suaren inguruan amazig musika, Sahararen erdian erabateko isiltasuna.

Er-Raxidiara abiatu ginen gero, bertan zain baikenuen beste bizipen berezi bat. Gure izeko Hafidaren lagun batzuk bisitatu genituen, sekulako abegikortasunez hartu gintuztenak. Familia giroan bazkaldu genuen haiekin, zoragarriki. Arratsalde partean, hiritik egin genuen osteratxo: kale lasaiak esploratu genituen eta herrialdeko zonalde horren eguneroko bizitza zertxobait gehiago deskubritu genuen.

Bisitaren ostean, iparralderantz jarraitu genuen eta egun bat igaro genuen Midelten, At-

las Ertainaren eta Garaiaren artean kokatutako hiri batean. Egonaldia laburra izanagatik ere, leku ona izan zen atsedean hartzeko, paisaia ezberdinez gozatzeko.

Beni Mellal aldera jarraitu genuen gero, non beste aparteko esperientzia bat bizi izan genuen: bi egun igaro genituen nire lagun Mohammed Diranekin eta bere familia osoarekin. Bidaia une oso polita izan zen; izan ere, lagun batekin Marokon egoteko aukeratu nuen lehenen aldia zen. Beso zabalik hartu gintuzten eta familiakoak izango bagina bezala sentiarazi ziguten. Inoiz ahaztuko ez dugun eskuzabaltasunez partekatu zituzten gurekin etxea, janaria eta denbora.

Bidaia amaierara heltzen ari ginela, atsedean hartu genuen Marrakexen, jarraitu aurretik energia berreskuratze-

ko. Hurrengo egunean kostaldera egin genuen ibilaldia eta Essauira ikusi genuen. Oso giro ezberdina zuen portuko hiriak: freskoa, lasaia eta xarmangarria.

Azkenik, Marrakexen itxi genuen bidaia, zalantzarik gabe oporraldiko ekintzarik onena izan zenarekin: ibilaldi bat quadean. Adrenalinaz beteriko esperientzia izan zen, paisaia harrigarriak ikusi eta barre pila bat egin genuen, amaiera bikaina inoiz errepikatuko ez diren egun batzuentzako.

Bidaia hau ez da Marokotik ibilbide soil bat izan, baizik eta bizipen pertsonal sakon bat. Paisaia ahaztezin, adeitasun puruaren eta lagun berri eta zaharren artean, argazkiak baino askoz gehiago eramanez genituen etxera: oroitzapen ezabaezinak eta maitasun handiz gordetzen ditudan konexioak.

Babestutako edukia



**audioalde**  
LANBIDE ESKOLA



**ikasLAN**

### Oinarrizko Lanbide Heziketa

Soldadura

### Erdi Mailako Heziketa Zikloak

Administrazio-kudeaketa

Instalazio Elektriko eta  
Automatikoak

Mantetze-lan  
Elektromekanikoa

Mekanizazioa

Soldadura eta Galdaragintza

Mikroinformatika sistemak  
eta sareak



[www.audioalde.eus](http://www.audioalde.eus)

### Goi Mailako Heziketa Zikloak

Zuzendaritzari laguntza ematea (2.a)

Administrazioa eta Finantzak

Sistema Elektromekanikoak  
eta Automatizatuak

Automatizazioa eta Robotika  
Industrialia

Mekatronika Industrialia

Fabrikazio mekanikoko  
Produkzioaren Programatzea

### Espezializazio ikastaroak

Fabrikazio adimentsua

Eragiketa-teknologiaren inguruneetan  
zibersegurtasuna



**LANBIDE HEZIKETAKO ONARPEN-ESKAERA**

Maiatzaren 4tik 22ra

Karmen kalea 17, **LAUDIO** (Araba)

Tel: 946 72 05 05 • [secretaria@audioalde.eus](mailto:secretaria@audioalde.eus) • [@audioalde\\_eskola](https://www.instagram.com/audioalde_eskola)

# Elkarrizketa

## “HEZIKETA ESPAZIO BEZALA ULERTZEN DUGU KALEA”



LAUDIOKO KALE HEZITZAILEAK DIRA **JAIME ROZPIDE** (Zalla, 1994) ETA **JONE REINA** (Morga-Bilbo, 1998). LAU ETA BI URTE DARAMATE LAN HORRETAN HURRENEZ HURREN. HERRIKO KALEETAN BIZI ETA LANDU DUTENAZ MINTZATU DIRA.



Testua eta argazkiak **Txabi Alvarado Bañares**

**Nortzuk zarete eta nola bukatu duzue Laudion kale hezitzaile lanetan?**

*Jaime:* Ni Jaime naiz, Zallan bizi naiz eta Gizarte Hezkuntza ikasi nuen. Ikasketak bukatu bezain laster lanean hasi nintzen. Hasieran, gizarte hezitzaile mutil ia guztei bezala, adingabekoen zentro batean lan egiteko deitu zidaten. Hezkuntza eredu hori ez zitzaidala gustatzen konturatu nintzen, eta lana utzi nuen. Momentu horretan Laudion lan egiteko aukera aterata zitzaidan, kale hezitzaile jardunean. Ez neukan zeregin honetan eskarmenturik baina bai ezagutzen nuen zer nolako lana egiten zuten. Adibidez, Hortalezako Julio Rubiok idatzitako *Decimocuarto asalto* liburuaren erreferentzia neukan. Laudion hasieran ni bakarrik nengoen, ondoren batu zen Jone, eta askoz hobeto gaude orain.

*Jone:* Aipagarria da Jaime eta biok batera ikasi genuela, aurretik ezagutzen genuela elkar. Orokorrean lan aukera nahiko dagoen esparrua da gurea. Ni hasiera baten gazte migratzaileekin lanean hasi nintzen, Bilbo inguruan kale gorrian bizi direnekin. Asko gustatzen zitzaidan lana zen, baina, egia da gogorra dela. Orduan geldialdi bat egin nuen, hurrengo pausuak pentsatzeko, eta erabaki nuen zerbait komunitarioagoa egin nahi nuela, herri edo auzoekin lotura estuagoa zeukana. Aukera hau aterata zitzaidan eta baiezkoa eman nuen.

**Zertan datza zuen lana?**

*Jone:* Lehenik eta behin esan behar da normala dela kale hezitzaileak zer diren ez jakitea. Jende askok ez daki zer egiten dugun, eta guretzako ere askotan ez da erraza azaltzea. Ez da oso orokortuta dagoen figura bat eta, gainera, toki bakoitzean modu ezberdinean lantzen da, ez soilik gazteei zuzendutako programen bidez. Adibidez, Gasteizen oso landuta dagoen figura da, auzoetan errortuta dagoena, Gizarte Zerbitzuen barnean kokatuta. Azken finean, gizarte hezkuntzatik kalean komunitatearekin esku-hartzean datza, gure kasuan, gazteekin zehazki.

*Jaime:* Hori da. Laudion, adibidez, zehaztu digute lan egiteko kolektiboaren adina, edo behintzat badago gazteei zuzenduta. Hori nire kasuan arraroa izan zen hasieran. Nik figura beste modu batean ulertzen nuen, komunitate guztiarekin lan egiteko, baina hemen

soilik gazteekin egiten da. Laudion kale heziketa programa pertsona gazteei bideratuta dago, adin txikiko nahiz adinez nagusikoak izanda ere. Udal bakoitzean arlo ezberdinetatik atera daiteke zerbitzua, eta Laudio kasuan prebentzio arloko zerbitzua da.

Kale hezitzaileok kalean egiten dugu lan, baina ez dugu ulertzen kalea bakarrik lan egiteko esparrua bezala, heziketa espazio bat bezala ulertzen dugu. Eskoletan, etxean edo kirolean heziketa prozesuak gertatzen badira, zergatik ez kalean? Kaleak bizipen, harreman eta esperientzia asko barnebiltzen ditu. Horregatik, gure apustua bertan dagoen jendearekin lan egitea da. Zubi lana egitea da askotan, kalean ezagutzen ditugun gazte horiei prozesuak erraztuz.

**Nola egiten duzue lan hori?**

*Jone:* Kale heziketa programatik planteatzen dena da gazteekin lotura egitea kalean, gero landu ahal izateko prebentzioaren esparruko helburu asko. Adibidez, aisialdi osasuntsuago bat izatea, aisialdirako aukerak izatea, presentzia hezitzaile bat egotea eta arazorik edo beharizanik sortuz gero erreferentziatzako figura bat eskura izatea.

*Jaime:* Kale hezitzaile figurak denbora nahikotxo darama Laudion, baina profesional aldaketa asko eta momentu ezberdinak egon dira. Gure aurretik beste hainbat hezitzaile egon izan dira, aldaketa asko tartean, horrek gazteengan duen eragin negatiboarekin.

**Gazteengana besterik gabe hurbiltzea arrotza suertatu daiteke eurentzat. Zuei ere arrotza egiten zaizue?**

*Jaime:* Astean 4 edo 3 egunetan ibiltzen gara kalean, gehien bat arratsaldeetan.

*Jone:* Kalean gabiltzanean orokorrean bi aukera daude. Alde batetik, buelta bat ematea herritik, gune ezberdinak identifikatzeko. Bestetik, behin zonaldea apur bat ezagututa, parkera etorri ohi gara, adibidez, badakigulako hemen gazteak daudela.

Eta hemen egonda, bi kasuistika egon daitezke: ezagutzen dugun talde edo gazteengana hurbiltzea modu naturalean, galdetzeko nola doan bizitza eta hortik tiraka hitz egitea.

Beste aukera bat da, inoiz hurbildu ez garen kuadrila batekin topo egitea. Lehen kontaktu hori bada arrotza, bai haientzat eta bai guretzat. Badaude, lehenengo aldiko nerbioak, ia nola hartzen gaituzten. Nahi badute, beti esaten

dugu ia tartetxo bat hartu ahal diegun gauza bat azaltzeko. Gure burua aurkezten diegu eta azaltzen diegu kale hezitzaileak garela eta zer egiten dugun oso era informalean, eta saiatzen haien kodigoe-tara moldatzen. Azkenean, ezin zara joan instituzio bezala, laguntza eskaini ahal duen figura bat bezala hurbiltzen gara.

**Zuen esperientziatik abiatuta, zein da Laudioko gazteen errealitatea? Zeintzuk dira euren behar-erizanak? Zerekin egin duzue topo?**

*Jone:* Alde batetik, badaude gazte asko oso bakarrik daudenak, inkluo laguntza eskatzen dutenak lagunak egiteko. Bakardade egoeran daude, herrian bakarrik sentitzen dira. Horretan ere sare berriak egiten saiatzen gara, herri barnean gune erosoagoak sortzen. Eta, beste alde batetik, jendeak problematiko bezala ikusten dituenak daude; nolabait esateko, sistematik edo ondo dagoen horretatik kanpo geratzen direnak, gauza bategatik edo besteagatik.

Kuadrilletan parte hartzen duten gazteak, orokorrean nahiko normalizatuak dira. Kontua da Laudio oso handia dela, are gehiago eskualde izaera hartzen badugu kontuan. Kanean aurkitzen dituzu beste alternatiba bat ez daukaten gazteak. Adibidez, Malekoiko tabernetan zerbait hartzen egotea aukera bat da dirua badaukazu, baina kanean, parkean, Ugarten... ere daude gazteak. Igual adin bera daukate baina beharbada ez dituzte aukera berdinak izan aisialdia izateko.

*Jaime:* Beharrak dituzten gazte asko daude herrian, eta horiekin lan egiten dugu. Gazteek daukaten testuinguruagatik askotan zaila da lanean hastea. Baina, hala ere, errespetu handiko gazteak eta oso autonomoak aurkitu ditut. Aisialdi eskaintza ezaren aurrean ahal duten bezala antolatzen dira haiek dituzten tresnekin, eta elkarri babesten diote.

*Jone:* Niri atentzioa eman dit, kanean aurkitzen ditugun gazte gehienak askotan mutilezkoak izaten direla. Mutil gehiago daude kanean eta gehienetan neskak badaude, mutilak eta neskak bakoitza bere aldetik. Ez da ohikoena genero ezberdineko gazteak nahastuta egotea.

*Jaime:* Bakarrik dauden gazteetako asko dira emakumeak. Pertsona horiekin ere lan egiteko gaude eta egiten dugu.

*Jone:* Horiek dira gazteek gehien errepikatzen dituzten beharrak: egoteko lekuak, estaliak, eta aisialdirako alternatibak. Dauden lekuak

**“Badaude gazte asko oso bakarrik daudenak, inkluo laguntza eskatzen dutenak lagunak egiteko. Bakardade egoeran daude, herrian bakarrik sentitzen dira”**

ez daude haien beharretara egokituta. Erantzun bat izan daiteke Gaztelekua dagoela, baina Gaztelekua 10-16 urterako tartea sartzen da. 10 urteko gazteak badoaz 15-16 urteko gazteak ez dira joango.

*Jaime:* Jaietan, adibidez, ekintzak kuadrillek antolatzen dituzte, baina kuadrilla horien baitan ez daude Laudioko gazte guztiak, parte bat bakarrik. Hortik kanpo jende pila bat geratzen da. Profil aniztasuna galtzen da, eta nahiz eta Laudiokoa izan ez zara heltzen Laudioko gazte guztiengana. Hemen jaietan oso agerikoa egiten zait hori, Laudion bizi den jende migrante guztia kontuan hartuta, kuadrilletan ez zela gazte migrante bat ere ez ikusten, gero kaletik guk bai ikusten ditugun arren.

**Kale hezitzaileak aukera ematen du instituzioak iritsi ezin diren toki horietara heltzeko baina, era berean, bazarete instituzio baten ordezkariak. Zaila da oreka hori mantentzea?**

*Jone:* Zaila da, izan behar dituzu bi alde horiek. Gazteei heltzeko haien kaleko moldeetara egokitzen gara eta azkenean gureak egiten ditugu. Era informalean lan egitea ateratzen zaigu. Baina, era berean, kasu honetan, Udalaren programa baten parte gara, helburu batekin eta konpromiso batekin. Udaletik ateratzen den programa da baina, aldi berean, kalearekin oreka hori mantendu

**“Malekoiko tabernetan zerbait hartzen egotea aukera bat da dirua badaukazu, baina kanean, parkean, Ugarten... ere daude gazteak”**

behar dugu, kanean antzemateko figura hurbil bat bezala, gazte baten begiradatik ikusita instituzioak askotan inkluo etsai bezala ikusi ahal direlako, edo zure kontra egin dezakeen zerbait bezala.

Oreka hori asko landu behar dugu gure aldetik. Gure egiteko era informalean egokitzea esku-hartzeak, eta ez horren beste Udalaren edo Gizarte Zerbitzuen betiko eratarik. Gazteekin konfidantzazko harremana egiteko konfidentzialtasuna bermatu behar dugu beti.

Lan egiteko forma honek instituzioaren logikarekin apurtzen du askotan. Informalaren eta instituzioaren oreka hori momentu askotan ematen da, eta kontraesan asko eragiten ditu horrek egunerok, bai.

**Zenbat dakizu kale hezitzaileei buruz?**

Erantzun galderak hemen:



# Argazki erreportajea

ETENIK EZ DUEN OSPAKIZUN SEGIDA ABIAN DA. SAN PRUDENTZIO, AIARA, SAN JOSE, GARDEA, MENOIO... UDABERRIAREKIN BATERA HASIERA EMAN DIOTE AIARALDEKO JAI-MARATOIARI.

## Lehertu dira udaberriko jaiak Aiaraldean



Testua **Aimar Gutierrez Bidarte**

Kontzertuak, herri bazkariak, txosnak, bokatak afaltzeko... hasi da jai-maratoia. Aiarako jaiekin batera lehertzearekin batera, erreskadan etorri dira Amurrioko San Jose eta Laudioko Gardea auzoetako jaiak, baita San Prudentzioko ospakizunak.

Apirilaren 24an Maitane Perez

idazle aiararrak jaurti zuen lehen suziri hori Arespalditzako udal-txe zaharretik, gaztetan herriko jaietan bizitakoak gogora ekarriz. San Prudentzioko danbor hotsek hartu zuten Maitaneren lekukoa, eta Aiaran ez ezik Laudio eta Amurrion barrena hedatu zen burrunba.

Apirilaren 30ean Amurrioko San Jose auzoko bizilagunen txanda iritsi zen. Auzokideen sareak

indartzeko baliatu zituzten festak beste urte batez. San Joseko jaiek Gardeako jaiekin elkarbanatu dute egutegia. Maiatzaren 1ean jaurti zuten auzo laudioarreko txupinazoa El Resbalon eta Bar Garayo taberna historikoak omen-duta.

Udaren hondarretara arte iritsiko da ospakizun zerrenda luzea; hurrengo geltokia ate joka dago: Urduñako Otxomaioak.



# Argazki erreportajea



# Argazki erreportajea



Ikusi  
argazki galeria  
guztiak hemen:



Aiaraldea.eus

elkarlan  asesores

**2025**  
**Errenta-aitorpena.**

[www.elkarlanasesoria.com](http://www.elkarlanasesoria.com)

**Zure aitorpena esku onetan**

30 urte baino gehiago enpresei  
eta partikularrei aholkularitza  
fiskala ematen

Lamuza, 12 · LAUDIO  
Tel. 94 672 74 28

Foru Kalea, 2 · AMURRIO  
Tel. 945 39 33 51

Torre de Ugao, 12. UGAO  
Tel. 94 603 91 65

## Babestutako espazioa

# Maiatzaren

## FAKTORIAN



**10, domeka**

19:00 · Faktorian  
BASA ZIKLOA/  
**GALBAHE  
KONTZERTUA**  
BAZKIDEEK 10€  
EZ-BAZKIDEEK 13€

#KULTURFAKTORIA  
#SORMENFAKTORIA



**13, eguaztena**

18:00 · Faktorian  
FAMILIEN KABIA/  
**FAMILIEN KABIA:  
JONE ZALDUEGI  
PORNOGRAFIA ETA  
INFORMAZIO ITURRI  
DIGITALAK**  
DOAKOA

#FAMILIENFAKTORIA  
#HEZKUNTZAFAKTORIA



**21, eguena**

18:00-21:00 · Faktorian  
TAILER TEORIKO-PRAKTIKOA/  
**AGROKOFEMIS-  
MOTIK ELKAR  
ELIKATUZ ZIKLOA  
HAZIERA**  
DOAKOA  
IZENA EMAN: l.eus/borborTLF

#BORBORELKARTEA  
#ELIKADURAFAKTORIA



**21, eguena**

18:00 · Faktorian  
FAMILIEN KABIA/  
**FAMILIEN KABIA:  
AMAIA EGIDAZU  
IPUINAK ZEINTZUK  
ETA NOLA KONTATU  
HAURREI?**  
DOAKOA

#FAMILIENFAKTORIA  
#HEZKUNTZAFAKTORIA



**23, zapatua**

10:00 · Faktorian  
SOLASALDIA/  
**F2035  
ESKUALDE TASUNA  
ETA KOMUNITARI-  
OTASUNA BISIO  
ESTRATEGIKOA**  
DOAKOA

#GOGOETAESTRATEGIKOA  
#AMESTEKOFAKTORIA



**24, domeka**

10:00-20:00 · Faktorian  
BASA ZIKLOA/  
**BASA ZIKLOAREN  
BIGARREN  
TOPAKETA**  
BAZKIDEEK 8€  
EZ-BAZKIDEEK 10€  
LANGABETU ETA  
IKASLEEK 6€

#KULTURFAKTORIA  
#SORMENFAKTORIA



**28, eguena**

18:00-21:00 · Faktorian  
TAILER TEORIKO-PRAKTIKOA/  
**AGROKOFEMIS-  
MOTIK ELKAR  
ELIKATUZ ZIKLOA**  
BEHARRETIK  
PLAZERERA  
DOAKOA  
IZENA EMAN: l.eus/borborTLF

#BORBORELKARTEA  
#ELIKADURAFAKTORIA



**31, domeka**

11:00 · Faktorian  
FAMILIEN KABIA/  
**0-3 URTEKO  
HAURRENTZAKO  
JOLAS LIBRERAKO  
ESPAZIOA**  
BAZKIDEEK 6€  
EZ-BAZKIDEEK 7€

#HEZKUNTZAFAKTORIA  
#KOKORIKO

**BASA ZIKLOKO  
EGONALDIAK**

Apirilaren 27tik maiatzaren 3ra  
**AINHOA APEZTEGIA**

Maiatzaren 11tik maiatzaren 17ra  
**GARAZI IDIRIN**

**BEKAK**  
Apiriletik ekainera  
**MIKEL AYLLON**

AIARALDEA ERINTZEN  
**FAK  
TO-  
RIA**



[WWW.FAKTORIA.EUS](http://WWW.FAKTORIA.EUS)

**INFORMAZIO  
GEHIAGORAKO:**  
HARPIDETU GURE  
WHATSAPP KANALERA!



# Kultura

## Abiatu da Basa zikloa, "indarberritze kolektibo bat"



Basa Zikloa abiatu du Kultur Faktoriak; gozamina, gorputza, natura, euskara, sorkuntza eta auzolana ardatz. [Aiaraldea.eus](http://Aiaraldea.eus)

Testua  
**Maider Ramirez Martin**

Ziklo artistiko berria aurkeztu du Aiaraldea Ekintzen Faktoriak: Basa. Diziplina ezberdinetako adierazpenak ekarriko ditu, "natura, euskara, eta gorputzak" ardatz.

"Geldialdi bat. Indarberritze kolektibo bat". Basa zikloa, hain zuzen, hori izango dela aldarrikatatu dute Kultur Faktoriako kideek: "Elkartzeko, pentsatzeko, gozatzeko, izkutuan dagoen informazioa elkarrekin gorputzera ausratzeko unea,(...) plazeari bide emateko unea".

Horretarako Aiaraldeko zein Euskal Herriko beste txoko batzuetako artista ugari gonbidatu dituzte topaketa eta egonal-

dietara. Garaion Sorginguneko Amaia Gabilondo, Azalako Idoia Zabaleta, Miren Gaztañaga, Ene-ritz Artetxe, Mikel Ayllon, Inge Mendioroz, Idoia Garces, Amaia Miranda, Berba Labanakaz, Jaseone Mitxeltorena edo Formol Laborategia dira, besteak beste, parte hartuko duten artista eta kolektiboetako batzuk.

Zenbat buru, hainbat diziplina: Arte plastikoak, soinu esperientzia, zinea, dantza, musika eta errezitaldi performatiboak, ikus-entzunezkoak, arkitektura eta artisautza bizitzeko eta esperimintatzeko aukera eman- go du Basak.

**Lokatzetan abiapuntu**

Ekainera arte luzatuko den zikloa iragan apirilaren 25ean

abiatu zuten. Egun osoko jarduera sortarekin eman zioten hasiera natura, gorputza eta euskara ardatz dituen egitasmoari. Ibilaldia, gogoetatzea, literatura, musika izan zituzten zikloaren estreinako egunean osagai, eta bereziki lokatza. Maiatzaren 24an eta ekainaren 6an egingo dituzte hurrengo topaketak.

Horrez gain, sorkuntza eta ikerketa egonaldiak ere egingo dituzte Faktorian bertan. Ainhoa Apeztegia izan da lehen- dabiziko artista egoiliarra. Apirilaren 27tik maiatzaren 3ra bitartean, "irudien bidez bizipen eta esperientziek sortzen dituzten kontakizunen arteko harremanaren inguruan" ikertzen aritu da. Mikel Ayllonek aldiz, zikloaren sorkuntza beka jaso du.

## Kaliforniako Mammoth Lakes Film Festivalean egongo da Josu Vaquerizo maiatzean

Testua  
**Aitor Aspuru Saez**

Josu Vaquerizo Britaina Handian bizi den zinemagile laudioarra gonbidatu du Mammoth Lakes Film Festival jaialdiak, aurtengo edizioan parte har dezan. Maiatzaren 20tik 25era bitartean egingo dute ekimena eta Kaliforniako toki menditsuan (ekialdeko mendizerran) izango da, non eski estazioa dagoen.

Zuzendariak ezuste atsegina izan du, festibalak oso balorazio positiboak baititu zinemaren munduan. Azken urteetan, besteak beste, Robert Pattison antzezlearen Damsel filma aurkeztu dute bertan, baita Netflixen *Abducted in Plain Sight* dokumen-

tala ere. Movie Maker Magazine aldizkariak jaialdi onenen artean izendatu du hainbat urtez eta antolatzaileek eurek zabaldu dute zinema industrian harremanak egiteko toki egokia dela.

**The Glass Magazine**

Vaquerizok lehen izango duen pelikula *The Glass Magazine* izango da. 42 minutuko fizkiozko filmak musika esperimentalaren sortzen duen neska bat du protagonista eta zuzendariak aipatu du "bizitza alternatiboetan sartzeko" balio duela.

Dena den, ez da, berez, pelikula hori Ameriketako Estatu Batuetan ikusiko den lehen aldia. Izan ere, iaz saria jaso zuen herrialde horretan.



XLVIII AIARA  
**SAN ISIDRO**

Maiatzak 15, ostirala, Arespalditzan

Artisauen eta ekoizleen  
azoka · **Abereak**  
Haragia eta gazta  
dastatzeko txosna  
**Haurrentzako ekintzak**  
**(San Isidro txiki)** · Herri kirolak  
eta askoz gehiago!



# ETB1eko Ztanda saioan bere "ametsa bizitzeko" prest dago Ximena



Ximena, bere lehen abesti propioa aurkezteko Faktorian emandako kontzertuan. [Aiaraldea.eus](http://Aiaraldea.eus)

Testua  
**Maidier Ramirez Martin**

Maiatzaren 8an itzuliko da Ztanda talent showa ETB1era. Formatuaren hirugarren denboraldia izango da honako hau eta parte hartzaileen artean Ximena abeslari audioarra dago.

Musikaren munduan ibilbidea egin ahal izatea izan du txikitatik amets Ximenak eta Ztandaren hirugarren denboraldirako castinga abiatuko zutela jakin zuenean, horretarako aukera ona izan zitekeela otu zitzaion.

Pentsatu eta egin, hala izan zela azaldu dio abeslariak Aiarraldea Komunikabideari: "Lau abesti jo nituen nire gitarrarekin. Handik eta aste batzuetara deitu zidaten barruan nengoela esateko eta segituan hasi ginen entseguekin". Dagoeneko talent showaren atal guztiak grabatuta badaude ere, bertan jazotakoari buruz ezin dezake ezer aurreratu Ximenak. Hori bai, bizitako abentura berri hau "bizitzan behin baino gertatzen ez diren gauza horietako bat" dela ziurtatu du audioarrak.

Musikaren munduan gehiago murgiltzeko aukera baliatzeaz gain, bere "erregistroa probatzeko" asmoz joan da Ximena Ztandara. Azaldu duenez, bost urte zituela hasi zen abesbatzan kan-

## Maiatzaren 8an hasiko dira emisioak, baina saioa jadanik bukatu da eta Ximenak ezin du ezer aurreratu

tatzen eta bertan ikasitakoak islatu ditu programan.

Ztandan bizitako esperientziak ikasketa berriak etxera eramateko ere balio izan dio Ximenari: "Jende pila ezagutu dut eta asko ikasi dut bai nire kideengandik eta baita programako lantaldearengandik ere".

Horregatik, musikan bere ibilbidea sakondu nahi dion edonori gomendatuko lioke "noizbait horrelako aukerarik suertatzen bazaio ez uzteko pasatzen, ate berriak zabaltzen baitira".

### Lehen saioa

Ximenaren parte hartzeak ikusmira handia sortu du Laudion. Maiatzaren 8an bertan Ztanda saioaren lehen atala ikusteko pantaila erraldoia jarriko dute Zubiko Malekoiko El Lio tabernan. Aurretik, Ximenak berak kontzertua eskainiko du bertan, 19:00etan.

### Abesti propioak

Zirkirik bez! erromeriako abeslaria ziateaz gain, kanta propioak ere sortzeari ekin dio musikari audioarrak. Hain zuzen, Faktorian plazaratu zuen bere lehen abestia, bere lehen kontzertuan. Aiarraldea Komunikabideak osorik grabatu zuen emanaldia eta hemen ikusi daiteke.

## Luis Paduraren omenezko liburua aurkeztuko dute Artziniegan eta Lantenon



Luis Padura artxibo irudi batean. [Aiaraldea.eus](http://Aiaraldea.eus)

Testua  
**Aitor Aspuru Saez**

Luis Padura artista eta artisaua omentzeko ekimenak antolatutuzte Artziniegan eta Lantenon maiatzean. Artziniegan hitzordua maiatzaren 8an izango da museoa 19:30ean eta Lantenon 23an 10:30ean eskolatan.

Izan ere, burdina, zeramika, egurra eta harria landu dituen aiarrak duela urte gutxi hartu zuen erretiroa eta Benjamin Respaldizari otu zitzaion bere lana aitortu behar zela. Ideia gauzatzeko Luis Angel Villate, Jose Luis Fernandez Zurbitu, Jose Luis Gotxi, Ritxar Agirre, Zuriñe Alonso eta Gorobelgo elkartearen elkarlana beharrezkoa izan da.

Lehenik eta behin Paduraren obren zerrenda osatu zuten eta gero testuak idatzi zituzten euskaraz (bertsoak) eta gazteleraz. Egitasmoan parte hartu duten

ezagunek eta lagunek ez ezik, beste aiarrak batzuek ere egin dute ekarpena. Adibidez, Jose Luis Urrutiak ere hitz batzuk jaso ditu bere omenez.

Edonola ere, argazkiek protagonismo handia daukate, lanak erakutsi eta azaltzeko. Artistak berak lagundu du irudien hautaketan.

Berez, Padurak XVI. mendeko teknikak ezagutzen ditu burdina lantzeko eta ikerketa arkeologikoetan parte hartu du, besteak beste, Alemanian. 2004an Muskizko Pobalburdinolan parte hartu zuen. Gainera, 1987an Espainiako Artisautza Saria jaso zuen.

Eskualdean oso eragile aktiboa izan da Artziniegako Museo Etnografikoan, bereziki hasitapenetan, eta gero Lantenoko Eskolan. Arlo akademikoan Legazpiko Lenbur Fundazioko, Urduñako eta Balmasedako Eskola Tailerretan izan da irakasle.

**arrate**  
gestoria aholkularitza aseguruak

Iturralde kalea 2, AMURRIO  
945 89 02 06  
info@arrategestoria.com  
www.arrategestoria.com

Utzi zure  
errenta **25**  
profesionalen  
eskuetan

Errenta-aitorpenaren plangintza  
gurekin egin ezazu.

20 urte baino gehiagoko esperientzia

# Elkarrizketa



**“EREDU IZAN NAHI NUEN NIRE IKASLEENTZAKO, ETA USTE DUT LORTU DUDALA”**

**LANDER LOIDI VADILLO** (Urduña, 1997) HEZIKETA FISIKOKO IRAKASLEA DA ARESKETA IKASTOLAN ETA EL CONQUISTADOR DEL CARIBE TELEBISTA SAIO ENTZUTETSUAN PARTE HARTU DU BERRIKI. BIZITAKO ESPERIENTZIAREN NONDIK NORAKOAK AZALDU DIZKIGU.



Testua eta argazkiak **Almar Gutierrez Bidarte**

**El Conquistador del Caribe programako azken edizioan parte hartu duzu berriki. Zerk bultzatu zaitu realityan izena ematera?**

Txikitatik izan naiz *Conquis* zalea, programa hasi zeneetik. Betidanik izan naiz nahiko mugitua eta kirolaria, eta programan ikusten ziren probek eta jolasek atentzioa ematen zidaten. Duela zortzi edo bederatzirte, 18 urteak bete berritan, nire lehenengo castinga egin nuen. Ez ninduten hartu; oso urduri joan nintzen, umetxoa nintzen oraindik. Azken bi urteetan, ordea, asko tematu naiz entrenamenduekin; ez *Conquisean* parte hartzeko, baizik eta ni hobeto egoteko. Edonola ere pentsatu nuen: "ze ostia! Saiatuko naiz berriro". Eta aurten zortea izan dut.

**Noiz egin zuenuen castinga?**

Azaroan joan ginen saioa grabatzera, castinga bi hilabete lehenago egin genuen, irailan. Aurreko castingarekin alderatuta oraingoan askoz lasaiago joan nintzen. Banekien nolakoa izango zen. Gainera, programaren ikuslea naiz

eta castingetako dinamikak ezagunak nituen. Proba fisikoetan oinarritutako programa bat da, eta profil kirolariak dira gehien bilatzen dutena. Baina gaur egungo *Conquis* ez da duela hamar urtetakoa. Ez dugu ahaztu behar *reality show* bat dela, eta lehiaketa hutsetik haratago ere, bestelako jokoa eskainiko duten profilak bilatzen dituztela.

Nik argi neukan espektakulo horretan ez nintzela sartuko, edozein kirol-probari aurre egiteko kapaza nintzela erakustera joan nintzen. Ikusi bezain pronto esan zidaten "txulito plantak" nituela. Ez naiz horrelakoa, inondik inora, eta programan ere uste dut erakutsi dudala. Baina kastingean paper horri heldu nion, eta zortea izan nuen.

**Espero zenuen zu hautatzea?**

Pozikatera nintzen castingetik. Ordu erdi egon nintzen, nirekin kointziditu zuten beste batzuk baino denbora dezente gehiago. Nigan zerbait ikusi zutela argi neukan.

Ikastolan lanean nengoela jaso nuen deia. Eurek esaten dute baiezkua emateko deitzen dutela soilik. Aurrehautaketan sartuta nengoela esan zidaten: lanean programan parte hartzeko egunak eskatu behar nituen eta mediku-azterketa egin.

**Azaroan joan zineten abenturan.**

Euskal Telebistak Miramonen dituen estudioetan elkar-tu gintuen, eta hortik zuzenean abiatu ginen Santo Domingora, bidean gau bat Madrilen egin eta gero. Ni oso urduri nindoan. Miramongo telebista platoa zapaldu genuen unetik ez genekien non amaituko genuen, ez genuen elkar ezagutzen... dena zen berria.

**Nolakoa izan zen egokitutako taldea lehendabizikoz ikustea?**

Nik oso positiboki baloratu nuen taldea. Imajinatzen dut programak izango zituela bere estrategiak partaideak nahasterako orduan, baina nik uste oso talde ona egokitu zitzaidala. Bidaia luzea egin genuen elkarrekin, eta lehiaketa murgildu aurretik hiruzpalau egun eman genituen batera Santo Domingoko hotel batean. Hor bazoaz ikusten, nolakoa den bakoitza; norekin bai, norekin ez... Saiatu ginen aurreko edizioetako proba batzuk entseatzan. Orokorrean oso talde ona zela esango nuke.

**Nola baloratzen duzu zure parte hartzea lehiaketan?**

Gazi-goza. Gehiago egin nezakeela uste dut. Bi aste eman nituen bertan, telebistaren bestaldean dagoen

## Elkarrizketa

ikuslearentzat bi hilabete eta erdi, hiru. Nik nire burua oso ondo ikusi nuen hasiera hasieratik. Indartsu. Banekien zein gaitasun fisiko nituen eta oso prest nengoela sentitzen nuen. Mentalki ere ondo egon nintzen. Askotan errepikatzen dizute burua dela Conquisean garrantzitsuena. Harritu egin naiz zeinen ondo ikusi dudan nire burua, uste dut oso prest nindoala. Banekien gaizki pasako nuela batzuetan baina nik nahi nuelako egon naiz bertan.

### Probak aipatu dituzu. Zein izan da zuretzat gustukoenak?

Jumarrarena asko gustatu zitzaidan, asko poztu nintzen ni hautatu nindutenean horretan aritzeko. Proba mitikoa da, eta aurretik etxean probatua nuen teknika. Karlos Arranz Urduñako alkate ohiarekin praktikatu nuen. Bera espeleologoa da, eta jumarra funtsezkoa da kobazuloetan ibiltzeko. Kontatu nion Conquisera joateko aukerak nituela eta jumarrarekin ibiltzen ikusi nahi nuela. Instalazioa muntatu genuen Urduñako suhiltzaileen egoitzan eta bertan aritu nintzen goiz batez gora eta behera.

Txerriaren proba ere asko gustatu zitzaidan. Akaso Conquiseko friki garenontzat, proba mitikoak egiteak badu bere xarma. Orokorrean oso dibertigarriak iruditu zaizkit gehienak, gozatu egin dut.

Etxean ohitua egon zaitezke kirola egitera, baina bertakoa beste erritmo bat da. Ez duzu ondo jaten, edan gutxi eta lo ere eskas. Probak irabazita ere kanpalekua ez da askoz erosoagoa (barreak). Lehen esan bezala nik bi aste eman nituen bertan.

### Programak bilatuko ditu mekanismoak jendea muturreko egoeretara eramateko, ezta?

El Conquistado del Caribe, azken finean, *reality show* bat da, eta hori argi izan behar duzu uneoro. *Realityak* bilatzen du zure burua muturrera eramatea, bai eta gainerako partaideekin duzun harremana erakustea. Pro-

**“Jende askok babestu nau: Urduñan, Ikastolan... Haiengatik nahi nuen gehiago egin, eskerrak ematearren”**

gramatik uneoro ari dira zu hitz eginarazten, hori dute gogokoena. Badago jendea sartzen dena eta badaude ere sartzen ez direnak; baina badakite nondik jo bakoitzaren inpultsoak azaleratzeko.

### Nolakoa da hainbeste kamara eta fokuekin elkarbizitza?

Ez daude hainbeste. Hasieran inpresioa sortzen du, baina azkar ohitzen zara. Uneoro duzu norbait zu grabatzen. Tarteka atsedena ematen dizute, baina gutxien espero duzunean agertzen dira berriro. Baina ohitu egiten zara. Niri oso jasangarria egin zait.

### Gogorra egin zitzaizun despedida?

Bai, eta are gogorragoa etxera iristerakoan. Nire huts-egite baten ondorioz kaleratu ninduten. Banekien gehiago irauz nezakeela. Jende askok babestu nau Urduñan, Ikastolan... Haiengatik nahi nuen gehiago egin, eskerrak ematearren.

### Programa Santo Domingotik bueltan zaudetela ari dira emititzen. Nabari duzu jendearen berotasun hori?

Bai erabat. Bai ezagunen aldetik, eta baita ezezagunen aldetik ere. Uste dut jendeak naizen moduan ikusi naue-la, *reality* batean egonda ere.

### Ikastolako ikasleei nahi izan zenien bidali mezua zure agurrean. Irakasle zaren aldetik erreferente izango zara haientzako, baina telebistan agertu ondotik are gehiago.

Egundoko ilusioa nuen haiengatik. Ni heziketa fisikoko irakaslea naiz; garrantzia handia ematen diot kirola edo ariketa fisikoa egiten ari garenean gainerakoak errespetatzeari, norbere burua onartzeari, gauza guztien gainetik disfrutatzeari... Hori guztia saiatu naiz transmititzen. Eredu hori erakutsi nahi nien ikasleei eta uste dut lortu dudala.



# Kirola

BORROKA KIROLAK

## Izaro Blancok Espainiako K-1 Txapelketa irabazi du



Izaro Blanco eskuratu duen domina berriarekin. [Aiaraldea.eus](http://Aiaraldea.eus)

Testua  
**Aitor Aspuru Saez**

Apirileko azken asteburuan lehiatu da Espainiako K-1 Txapelketa La Nucian, Alacanten, eta Izaro Blancok beste domina bat eskuratu du bere palmares luzera gehitzeko. Hain zuzen, urrezko garaikurra ekarri du hiru borroka irabazi eta gero.

Gaztea oso pozik geratu da bere parte hartzearekin. "Lehenengo bi borroketan oso ondo atera zen dena eta lan egindakoa islatu zen. Hirugarren nor-

gehiagokan, finalean, urduritasuna dela medio, ez nuen hain pozik bukatu, baina lan handia egin dut", azaldu du orozkoarrak. Andaluzia, Nafarroa eta Kanariar Uharteko ordezkariak gainditu behar izan zituen Blancok txapelketa irabazteko.

Bereziki pozik dago kirolaria lehenengo aldiz txapelketa handia lortu duelako ringean. "Diziplina honetan, tatamiarekin alderatuta, indar handiagoz jo dezakezu, baina, ondorioz, KO bat jasotzeko arriskua ere biderkatzen da", azaldu du.

Gogoratu beharra dago Blancok tatamian goia jo duela hainbat lehiaketetan. Edonola ere, ringa erronka berria da berarentzat eta bidelagunak aitortu ditu. Alde batetik, Sergio Sanchez entrenatzailea, zeinarekin Gasteizen trebatzen den lanegunetan. Bestetik Iker Blanco bere neba, Basque Fight Team-en arduraduna eta asteburuko entrenamenduen burua.

Gauzak horrela, eta emaitzak oso onak izan arren, orozkoarra irrikan dago entrenatzeko eta hobetzeko.

ATLETISMOA

## Igor Castillo laudioarra 75. sailkatu da World Cross Country Tourrean

Testua  
**Aitor Aspuru Saez**

Munduko zirkuitua den World Cross Country Tourrean emaitza oso positiboak eskuratu ditu Igor Castillo atleta laudioarrak, 75. sailkatu baita. Kirolariak balorazio ona egin du, aintzat hartuta 50 urte dituela, eta meritu apurra kendu gabe, aitortu du euskal lasterkariak eskura dutela sailkapen interesgarria erdieste.

Berez, lehiaketa hau munduko 27 lasterketek osatzen dute. Gehienak Europan dira, eta ziurtutuan proba puntuagarria iza-

teko mundu mailako korrikariaren parte hartzea bermatu behar dute antolatzaileek. Horrek ekartzen du kirolari horien katxeak ordaindu behar dituztela.

Gauzak horrela, Euskal Herriaren World Cross Country Tourreko lau lasterketa jokatzeko dira. Igor Castillo horietako hiru lasterketetan parte hartu du: Amurrioren, Zornotzan eta Elgoibarren. Azken bietan atletak kanporatzeko araua dago, lehenengo sailkatuak bikoizten baditu, ez dute punturik lortzen, eta hori erronka handia da pro-

fesionalak ez diren kirolarientzat. Laudioarrak bereziki goiraipatu du Elgoibarren egindako lana, ibilbide gogorra baita.

Berez, bigarren aldiz lortu du Castillok World Cross Country Tourreko lehen 100. sailkatuen artean egotea. Iaz 97. izan zen, baina ez zen konturatu. Alegia, Pablos Mas Oinkariak klubeko presidentek jakinarazi zion.

Ondorioz, azken denboraldian kontzienteki lehiatu da zirkuitu horretan emaitza hobetzeko. Horrez gain, Euskadiko Kros Liga ere irabazi du, Master 50 kategorian.

FUTBOLA

## Hirugarren mailara itzultzea lortu du Amurrio Clubak



Irubat talde Gasteiztarra menderatuta lortu zuten igoera. [Aiaraldea.eus](http://Aiaraldea.eus)

Testua  
**Aitor Aspuru Saez**

Amurrio Clubak poztasunez ospatu du hirugarren mailan arituko dela hurrengo denboraldian, iragan apirilaren 25ean Irubat taldea menderatu ondoren. 0-1 irabazi zuten aiaraldearrek Gasteizen eta gola ez zen heldu 94. minutura arte, epika apurra emanda garaipenari.

Klubeko presidentek zoraga-

rrizat jo du denboraldia. Hasiera ona izan zuten, baina gero emaitza krisialdia izan zuten, bolada batean ez baitzuten lortu irabazterik.

Dena aldatu zen otsailean. Alde batetik, pare bat jokalarri berri ekarri zituzten. Bestetik, lesioak zituztenak itzuli ziren.

Gauzak horrela, sekulako marka positiboa ezarri du taldeak, hamalau garaipen izan baititu jarraian.



**araba euskaraz '26**

*Taupadak berpiztu!*



**Porrotx eta Marimotots AMAZONIA GARA**

**Amurrio Antzokian Maiatzak 22, 17:30etan**

**Sarrerren salmenta:**  
**www.arabaeuskaraz.eus -en**  
**Aurrez: 8€+G.G**  
**Bertan: 12€**



Antolatzaileak



Laguntzailea



## Babestutako espazioa

# KOKORIKOREN 2026 UDA KO ESKAINTZA



## BASOAN EUSKARAZ JOLASEAN

EKAINEAN ETA UZTAILEAN  
9:00-15:30 OLARTEN

NORBERE NATURATIK, NATURA  
EUSKARAZ MAITATU. NATURAN JOLASTUZ  
ASKATASUNEAN HEZI!

### ORDUTEGIA

Astelehenetik ostiralera  
9:00etan haurrak jaso  
15:30etan itzuli



HAURREI  
BAZKARIA  
EMANGO  
ZAIE

### TOKIA

OLARTE AUZOA (Laudio)

- Haurrak Luiaondon jaso eta itzuliko dira
- Udalekua BASO BATEAN garatuko dugu

### ADINA

2016-2023 urte bitartean  
jaiotako haurrak

### PREZIOAK

ASTE BAT (bazkaria barne):  
Bazkideak 95 €  
Ez bazkideak 105 €  
4 ASTE:  
Bazkideak 360 €  
Ez bazkideak 400 €

### TXANDAK

1. Ekainaren 22etik 26ra
2. Uztailaren 13tik 17ra
3. Uztailaren 20tik 24ra
4. Uztailaren 27etik 31era

### JANTOKI ZERBITZUA

- Udalekuaren prezioaren barruan dago jantoki zerbitzua



## IZEN-EMATEA

APIRILAREN 21 ETIK AURRERA

### IZENA EMAN

[www.labur.eus/faktoriaudalekuak2026](http://www.labur.eus/faktoriaudalekuak2026)

### INFO+

Whatsapp 693 855 312  
[www.faktoria.eus](http://www.faktoria.eus)

## OHARRAK

- Leku mugatuak daude. Ez-bazkideen kasuan ordainketa dataren arabera gordeko dira plazak. Bazkideen kasuan izen emate ordenaren arabera.
- Izena emateko azken eguna txanda bakoitza hasi baino aste bete lehenago itxiko da.

## FAKTORIAN IKERTZAILE BIHURTU

ABUZTUAN, 9:30-13:30 FAKTORIAN

FAKTORIAN 5 EGUNeko ESPERIENTZIA  
ZIRRARAGARRIA BIZIKO DUGU!  
INGURUKO ANIMALIAK ETA LOREAK  
IKERTUKO DITUGU!

### ORDUTEGIA

Astelehenetik ostiralera  
9:30etan haurrak jaso  
13:30etan itzuli

### DATAK

1. Abuztuaren 3tik 7ra

### PREZIOAK

ASTE BAT:  
Bazkideak 75 €  
Ez bazkideak 85 €

### TOKIA

FAKTORIAN (Laudio)

### ADINA

2016-2023 urte bitartean  
jaiotako haurrak



## AIARALDEA IBILIZ III UDALEKU IBILTARIA

UZTAILAREN 2TIK 7RA  
NERABEENTZAKO EKINTZA

Uztailak 2, 10:00etan hasiera  
Uztailak 7, 12:30 bukaera

Izena emateko azken eguna  
ekainak 15

### ADINA

DBH2- BATXI 1  
2012-2009 urte  
bitartean jaiok

### PREZIOAK

Bazkideak 85 €  
Ez bazkideak 120 €



# Herriko plaza



## Marina

Zorionak, Mari!  
Kilometro asko batzen jarrai dezazun.

**Txaros**



## BIDALI ZURE ZORION AGURRA!

Idatzi zure mezua eta bidali argazkia [erredakzioa@aiaraldea.eus](mailto:erredakzioa@aiaraldea.eus) helbidera edo 688 84 81 52 WhatsApp edo Telegram zenbakira. Maiatzaren 20an argitaratuko dugu hamabostekariaren hurrengo zenbakia.

## Denborapasak


### SUDOKU ERRAZA

			7		3			5
3	7			2				
9	5		8			3	7	2
			4					7
		3				9		
		2			6	8	5	
	3		6	8		7		1
	2		9		7		8	
			1	2	4			9


### SUDOKU OSO ZAILA

			4					
8	6							
	3			2	5			
6							5	4
4		5		3		7	8	
	8			7		3	2	
				6			4	
2	5			9				
				8				3

### ANDERSEN MATEA



### GREKO MATEA



Zuriek jokatzen dute eta mate egiten dute.

**Amurrioko Xake Taldea**

### DENBORAPASEN SOLUZIOAK

Sudoku eta xake partiden soluzioak webgunean ikusgai: [www.aiaraldea.eus/denborapasak](http://www.aiaraldea.eus/denborapasak)

## Zozketa



## Porrotx eta Marimototsen 'Amazonia gara' ikuskizunerako sarrerak zozkatuko ditu Aiaraldeak



Parte hartu!

**Maiatzaren 22an Amurrio Antzokian eskianiko duten 'Amazonia gara' ikuskizunaz gozatzeko hiru sarrera bikoitzen zozketa**

Zozketaren data: Maiatzak 10, 14:00etan

## Herriko plaza

### Boluntarioen Txokoa

Dozenaka inurriren lan ikusezin eta isilari esker egiten du aurrera Komunikabideak. Badira hamabostekariak euren auzoan banatzen dituztenak. Badira argazkiak bidali eta albisteen berri ematen dutenak. Guztiak dira ezinbestekoak. Haiei guztiei esker ona eta ahotsa ematea besterik ez dugu.



**ANE IZQUIERDO ETA GORKA TXAMORRO**  
KOLABORATZAILEAK

## “EUSKARA ERDIGUNEAN JARTZEN DUTEN PROIEKTUAK BABESTU ETA INDARTU EGIN BEHAR DIRA, HEMEN ETA EUSKAL HERRIKO EDOZEIN TOKITAN”

**Aiaraldea Hemen hamabostekaria banatzen aritzen zarete boluntario lanetan. Zein da ohikoan egiten duzuen zatia? Zertan datza egiten duzuen lana?**

Gure lana, funtsean, hamabostekaria herrira iristea bermatzea da. Aleak jaso eta Arrankudiaga-Zolloko puntu desberdinetan banatzen ditugu: tabernetan, udalean, eskolan edo bestelako guneetan, jendeak erraz eskuratu ahal dezan.

Lan xumea dirudi, baina kate osoaren azken zatia da, eta ezinbestekoa da edukia benetan herritarrengana heltzeko. Azken finean, egiten duguna da euskaraz sortutako informazioa kalean jartzea, eskuragarri egitea.

**Nolatan edo zer dela eta hasi zineten lan hori egiten?**

Modu naturalean hasi ginen. Aiaraleda hedabidea sortu zenetik ezagutzen eta kontsumitzen dugu, eskualdeko euskarazko hedabide bakarra baita. Gainera, Aiaraleda Kooperatiba elkartetik Faktoria sortu zenean, gu bazkide bihurtu ginen, argi genuelako euskararen arnagune diren proiektuetan sinistu eta horiek babestu behar ditugula. Hortik dator gure inplikazioa: euskararekiko eta eskualdearekiko konpromisotik. Ulertzen dugu halako egitasmoek komunitatearen babesa behar dutela bizirik irauteko, eta guk gure alea jarri nahi izan dugu. Ulertzen dugu halako proiektuak ez direla berez existi-

tzen, baizik eta jende askoren ekarpenari esker mantentzen direla. Aiaraleda bezalako komunikabide batek balio handia du, eta horregatik erabaki genuen gure ekarpena egitea, nahiz eta xumea izan. Azkenean, modu naturalean iritsi ginen hona: beharra zegoen, eta guk erantzun genuen.

**Zein esango zenukete dela hamabostekariaren harrera Arrankudiaga-Zollon? Zergatik?**

Orokorrean harrera ona du. Jendeak ezagutzen du eta badago ohitura bat alea hartzeko eta irakurtzeko. Gertuko edukiak eskaintzen dituelako gertatzen da hori: herriko kontuak, eskualdeko gaiak, bertako jendearen ahotsa... Horrek identifikazioa sortzen du. Hala ere, badago oraindik erronka bat: jende gehiagorengana iristea, batez ere ohitura hori ez dutenengana edo euskararekin harreman ahulagoa dutenengana.

Honetan ere eskolak egiten duen lana azpimarratzekoa da: umeein irakurketa lantzen dute, eta gainera eskualdeko perspektiba euskaratik jasotzen dute. Horrek oso oinarri sendoa ematen du, gaztetatik ohitura eta lotura hori sortzen delako. Hori guztia funtsezkoa da etorkizunera begira.

**Zer nabarmenduko zenukete Aiaraleda Hemen hamabostekaritik? Zer botatzen duzue faltan hamabostekariari?**

Nabarmenduko genuke gertutasuna eta tokikotasuna. Hedabide handietan agertzen ez diren gaiak lantzen dira, eta bertako errealitatea euskaraz kontatzeko aukera ematen du. Horrek balio handia dauka.

Faltan botatzeari dagokionez, gustatuko litzaiguke herrietako eragile, entitate eta elkarteei leku handiagoa ematea, modu irekiago eta presentzia handiagoarekin. Azkenean, komunitatearen parte aktiboa dira, eta haien ahotsak eta ekarpenak are gehiago indartzea aberasgarria litzateke guztiontzat.

**Zer nolako funtzioa betetzen dute zuen ustez euskarazko tokiko hedabideek Aiaraleda bezalako eskualde batean?**

Gure ustez, funtzio estrategikoa dute. Batetik, informazioa euskaraz jasotzeko aukera bermatzen dute, eta hori oinarritzkoa da. Baina hortik harago, komunitatea artikulatzeko tresnak dira: eskualdearen kontakizuna eraikitzen dute, bertako errealitatea ikusgarri egiten dute eta euskarari egunerokoan leku bat ematen diote.

Aiaraledan, euskararen egoera kontuan hartuta, are garrantzitsuagoa da. Euskara erdigunean jartzen duten proiektuak babestu eta indartu egin behar dira, hemen eta Euskal Herriko edozein tokitan, baina gurean bereziki. Azkenean, hizkuntza bat bizirik mantentzeko, eguneroko erabilera behar du, eta tokiko hedabideek horretan zeregina erabakigarria dute.

**Argitaratzailea:** Aiaraleda Kooperatiba Elkarte

**Tirada:** 10.000 ale.

**Maiztasuna:** Hamabostekaria

**Lege gordailua:** BI-1230-2013

**Posta elektronikoa:** egunkaria@aiaraleda.eus | agenda@aiaraleda.eus

| erredakzioa@aiaraleda.eus

**Publizitatea:** publizitatea@aiaraleda.eus | 688 62 53 94

**Helbidea:** Errotari kalea 4-8 pabilioia, Laudio. Araba. 01400

**Telefonoak:** 94 656 85 54 | 688 84 81 52

**Webgunea:** www.aiaraleda.eus

**Erredakzioa:** Maider Ramirez Martin, Aitor Aspuru Saez, Txabi Alvarado Bañares eta Aimar Gutierrez Bidarte

**ERREDAKZIO OHARRA:** Aiaraleda Komunikabideak ez du bere gain hartzen iritzi artikuluetan, zein egindako elkarrizketetan adierazitakoaren erantzukizuna.

**ESKER BEREZIAK BANATZAILE BOLUNTARIOEI:** Aitziber Alava, Josu Zabala, Gemma Corbella, Endika Arribas, Gorka Chamorro, Ane Izquierdo, Aitor Fernandez de Pinedo, Jon Catalan, Iñaki Larrakoetxea,

Ametz Meaza, Lander Ria, Xabi Ugalde, Alberto Gutierrez, Eunate Molinuevo, Ekhiñe Etxepeteleku, Iratxe Murias.

**LIZENTZIA:** DOAN ETA LIBRE  
Aiaraleda komunikabideko edukiak koptatu, moldatu, zabaldu eta argitara ditzakezu, gure egiletza aitortu eta baldintza beretan eginez gero.



Lizentzia hau baliagarria da testuentzat eta, argazkien eta ilustrazioen kasuan, Aiaraleda Komunikabidea daramatzatentzat soilik.

EGUNKARI HAU LAGUNTZEN DUTE:



# Ko



## Irakurketa gunea

### NON BEGIA, HAN EGIA

**Idazlea:** Victor Belmont

**Itzultzailea:** Julio Soto

**Argitaletxea:** Txalaparta

Mundua zelan ikusten dugun hausnartzen laguntzen digun eleberria da. Daltonismoa duen pertsona batek bere buruari galdetzen dio besteek ea zelan ikusten duten mundua. Hortik abiatuta hasiko da bidaia...



### ARRATS ZAPO BAT

**Egilea:** Maite Mutuberria

**Argitaletxea:** Kalandraka Pamiela

Zapoa da liburuko protagonista, hala ere berak ez du hitz egiten. Ilustrazioen bidez ondo adierazten du zeintzuk diren bere emozioak. Gai sakonak lantzen ditu (heriotza, handi-txiki boterea...), oso modu jostagarrian.



## JOLASGUNEA

### ETXAURI PLAZA

**LEKUA:** Gasteizko Alde Zaharra

**AZALPENA:**

Auzoko familiekin batera "Haurren Auzoa" deituriko jolaserako espazioa garatu dute. Ez da soilik jolaserako espazioa, elkargune bat ere izan nahi du, baita ikuskizun txikiak egiteko gune bat ere.



Parkea ahalik eta naturalena eginda dago, Alde Zaharraren erdian kokatzen da. Kotxeetaz babesteko neurriak hartu dituzte, baita atzeko aldean dagoen kotxe aparkalekua parketik ez ikusteko modua ere.

Jolaserako elementu ugari dituzte, batzuk estandarizatuagoak eta beste batzuk aldiz natur elementuekin sormena lantzekoak. Aldapak, zuhaitzak, ibilbideak... Hainbat jolas egiteko aukera ematen dute elementuek.

Parte hartzez egindako proiektu hau, auzoa batzeko diseinatua dago, auzoa egiteko.



**KOKORIKO**  
HEZKUNTZA FAKTORIA

### Udalekuak

Badaukagu uda ate joka! Eta ziur nago etxe batean baino gehiagotan urduritasunak etorriko dela. Zelan antolatuko gara, oraindik zaintza beharra daukaten, etxeko adingabeak artatzeko?

Galdera horrek geroz eta zailtasun handiagoak sortzen ditu, lana geroz eta prekarioagoa izan orduan eta zailtasun handiagoak daude egoerari aurre egiteko.

Zailtasun hauek baretu nahian, hasi dira udako eskaintzetan izena emateko epeak. Hezkuntzako komunitateko kide bezala, argi dut, udalekuak ezin direla egon ea zelan kontziliatu daitekeenari begira. Udalekuek haurra jarri behar dute erdigunean eta haurrei begira egon behar dute.

Hori dela eta udalekua aukeratzeko momentuan ere, garrantzitsua da begiratzea zein den norberaren haurren beharrei egokien erantzuten dien proiektua. Ordutegiari begiratu beharrean, beste ezaugarri batzuei begiratzea komeni dela uste dut.

Alde batetik, hizkuntzaren afera daukagu. Eskualdean badaude proiektu asko "erdaltoki" bezala funtzionatzen dutenak. Euskaraz egitea edo euskara noizean behin erabiltzeak ez du esan nahi, proiektuak, haurrak euskalduntzeko balio duenik. Euskara zutabe bezala izan behar du proiektuak eta euskara lantzeko (gaitasuna eta erabilera) dinamikek eta metodologiek toki garrantzitsu bat izan behar dute.

Bestetik, haurrak udalekuetan dauden denbora dugu. Kasu honetan idealenaz hitz egingo dut, bakoitzaren beharrek askotan ez digutelako ideala hartzen. Haurrentzako idealena udalekuetan uda osoa ez ematea da. Asteak tartekatzea, eta deskantsurako tartekak izatea. Urte guztiko nekea, deskantsatzeko unea da uda. Eta udalekuak jolasean oinarritzen diren arren, ez dira urteko erritmoa geratzeko modua.

Azkenik, haurrarekiko begirada dago. Haur bakoitza ezberdina den arren, badaude adinari lotutako hainbat ezaugarri kontuan hartu behar direnak. Hala, jolas librea oinarritutako proiektuek erantzuten diote haurren beharrei egokien.

Horregatik gomendatzen dut haurren beharrei egokien lotutako proiektu euskaldun batean izena ematea! Haurrak gozatuko du eta!

## PIPER BETEAK



**OSAGIAK**

- |                 |             |
|-----------------|-------------|
| - Piper gorriak | - Gazta     |
| - Ziakerbak     | - Irina     |
| - Berakatza     | - Tipula    |
| - Esnea         | - Azenarioa |


**ZELAN EGITEN DA?**

1. Berakatza zuritu eta txikitu. Ziakerbak garbitu. Biak zartaginean gorritu.

2. Ziakerba eta berakatzari irina bota eta buelta batzuk emanda esnea bota. (Aurretik ziakerbak irabiagailutik pasa daitezke). Bexamel loditxo egin behar dugu. Hozten jarri.



3. ESKUEN ORDUA! Bexamela hotzarekin piperrak bete. Goilara batek lagundu ahal du.

4. Saltsa egiteko, sugorritu tipula eta azenarioak. Ur apur bat bota eta eginda daudenean irabiagailutik pasa.




**Hirukoitza** Sarda honetan hamahiru arrain mota daude. Mota bakoitzetik bina arrain aurkituko dituzu, batetik izan ezik. Salbuespeneko arrain mota hori hirukoiztuta dago. Zein da?

**Non ote dira?** Ibai honetan 11 amuarrain, 5 aingira eta 10 karramarro daude, eta denak hementxe aurkituko dituzu. Seinala itzazu.



## Handienetik txikienera

Ordena itzazu urpeko ontzi hauek handienetik txikienera. Handienari 1 zenbakia eman eta txikienerari 8.



## Soluzioak



# Kontra Aiaraldetik mundura



## AINHIZE UGARTE

JAIOTERRIA  
LAUDIO (1992)

BIDAIAREN XEDEA  
FAMILIAK LAN AUKERA  
BAT JASO ZUEN  
BARHAINETIK

## “GUDA HASI ARTE OSO POLITA ETA OSO ABERASGARRIA IZAN DA ESPERIENTZIA BAHRAINEN”

### Zenbat denbora eman duzue Bahrainen?

Abuztuan joan ginen eta Laudiora itzuli ginen guda hasi zenean, martxoaren 7an. Daneli, nire bikotekideari, proposatu zioten lan proiektu bat eta hara jo genuen, familiarako proiektu polita izan zitekeela iritzita.

Guda hasi arte oso polita eta oso aberasgarria izan da esperientzia. Herrialdea kultura ezberdinez osatuta dago eta ematen dizu aukera bestelako errealitatekin harremana izateko, ikusteko eta partekatzeke.

**Zer gustatu zaizu Bahrainen?**  
Ilunabarrak eta egunsentiak

izugarriak dira. Herrialdea oso segurua da, joan zaitezke aurreiritziekin esparru horretan, baina oso lasaia da. Etxeko ateak irekita daude, autoen giltzak jarrita uzten ditugu eta erosketak egitean jende askok ibilgailua irekita eta motorra piztuta uzten du. Hemen ez zaigu horrelakorik bururatzeko.

**Dena joan da ondo harik eta Ameriketako Estatu Batuek eta Israeliek Iran eraso duten arte.**

Guda hasi zenean, larunbatero bezala geunden erosketak egiten eta itzultzean Danelek enpresako gerentearen deia jaso zuen. Niri amak deitu ninduen jakiteko

ondo geunden. Elkarri partekatu genion informazio hori eta berehala hasi ziren sirenen hotsak.

Harrituta geratu ginen, ez genekien zer zen. Jarraian telefonoan agertu ziren alarmak, adierazteko leku seguruan babestu behar genuela. Geroztik sarritan agertzen ziren alarmak eta urrunetik bada ere, ezta entzuten genituen. Izan droneak, misilak edota interzeptio gailuenak, entzuten genituen. Gaez ere ikusten genituen. Kontuan hartu beharra dago Bahrain txikia dela, hortaz, eraso nabaritzen zen. Gero egon gara Saudi Arabian eta handiagoa denez, zonalde guztietan ez zen sumatzen.

### Noia erantzun zenuten egoera horretan?

Ezjakintasunetik. Ez genekien zer gertatzen zen, eta WhatsApp ere etengabe jotzen zuen; eskolako familien mezuak, auzokoenak... Hasieran informatu ginen. Agian hemen informazio gehiago zenuten.

Lehen eguna gogorra izan zen, baina gaua askoz gehiago. 30 minuturo pizten ziren alarmak, ikusi genituen droneak, entzuten ziren interzeptioak... Eta hori umeekin zaila da.

### Noiz arte egon zineten horrela?

Zorionez, bigarren egunean alde egin genuen. Zumaiko neska bat eta bere familia ezagutu genuen Qatarren eta eskaini ziguten Saudi Arabiara joatea eurekin. Zubi batek lotzen du Bahrain eta Saudi Arabia. Oso gertu dago. 30 minututan kanpoan geunden.

## BAHRAINGO ERRESUMA



### AZALERA

9.833.517 kilometro koadro.

### BIZTANLEAK

340 milioi biztanle.

### HIZKUNTZAK

Arabiera da ofiziala.  
Ingeles, farsiedota urdu  
hizkuntzak ere mintzo dira.

## Bazatoz? MATRIKULA ZABALIK 2025ean eta 2026an jaiotakoentzat

Zatoz Laudio Ikastola ezagutzera!  
94 672 67 37  
matrikula@laudioikastola.eus



 **IKASTOLAK**

 LAUDIO ikastola

 Aresketa ikastola